

KOLONEKO MINBIZIA GOIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA

10. bertsioa. 2023ko abendua

Egileak

Koloneko Minbizia Goiz Detektatzeko Programaren Koordinazio Zentroa

Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia

Isabel Portillo

Isabel Idigoras

Irene Sainz de Rozas

Beatriz Erro

Koldo López-Guridi

Marga Urrejola

Arantza Menchaca

Jon Koldobika Hurtado

prevencionccr@osakidetza.eus

Programa hau (10. bertsioa. 2023ko abendua) eguneratu dugu, gehiago jakin dezagun kolon eta ondesteko minbiziak munduan, Europan eta Euskadin duen egoerari buruz eta baheketak detekzio goiztiar gisa duen ahalmenari buruz.

2020ko azaroko bertsiotik (9. bertsiotik), prozedurak eguneratu ditugu; hortaz, Baheketa Programari erantsi zaizkion alderdi guztiak aurkeztuko ditugu, jarduerak hobetzeko aukera emango digutelako. Hala, profesionalei nahiz herritarrei ebidentzia zientifikoan eta adostasunean oinarritutako informazioa ematea da helburua. Programaren Koordinazio Zentroko (PKZ) lantaldeak idatzi eta editatu du bertsio hau.

2009an hasi zenetik hainbat aldaketa egin dira, eta protokolo berriak sartu dira, prozeduren estandarizazioa erraztu eta emaitzak hobetzeko.

Dokumentu hau dinamikoa da, eta iradokizunak egin dakizkioke. Are gehiago, ezingo zatekeen prestatu, denbora honetan guztian beren ideiak eman dituzten pertsonen eta profesionalen laguntza baliotsua jaso izan ez balitz.

Gure esker ona adierazi nahi diegu 10. bertsio hau hobetzeko asmoz eremu eta jakintza guztietatik ekarpenak egin dituzten pertsona guzti-guztiei.

Kolon eta Ondesteko Minbizia Bahetzeko Programaren Koordinazio Zentroa

Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetza

Osakidetza Zuzendaritza Nagusia

Kale Nagusia 62, 4. solairua

48011 Bilbo

prevencionccr@osakidetza.eus

900 840 070

<https://www.osakidetza.euskadi.eus/programa-de-prevencion-del-cancer-colorrectal/webosk00-os-kenf/eu/>

AURKIBIDEA

1. LABURDURAK	4
2. SARRERA	6
3. KOLON ETA ONDESTEKO MINBIZIAREN EUSKADIKO BAHEKETA-PROGRAMA (KOMBP)	19
4. KOLON ETA ONDESTEKO MINBIZIAREN (KOM) BAHEKETAREN OINARRIAK	30
5. KOM-A BAHETZEKO 2023-2025EKO PROGRAMAREN HELBURUAK	39
6. JARDUERA-ESPARRUA	40
7. BAHETZEKO PROZEDURA OROKORRA	41
8. INFORMAZIO-, MONITORIZAZIO- ETA EBALUAZIO-SISTEMA	45
9. BAHEKETA-PROGRAMAREN KUDEAKETA-IBILBIDEA	46
10. BIBLIOGRAFIA	50
I. ERANSKINA POPULAZIOA HAUTATZEKO ETA PROGRAMAREN ADIERAZLEAK LORTZEKO IRIZPIDEAK	54
II. ERANSKINA GONBIDATZEKO PROZEDURA	61
III. ERANSKINA LAGINAK ENTREGATU ETA PROZESATZEA	65
LAGINAK LABORATEGIRA BIDALTZEKO MANEIATZEA	67
IV. ERANSKINA FIT TESTAREN EMAITZAK KUDEATZEA	70
V. ERANSKINA EMAITZA POSITIBOAK KUDEATZEA	72
VI. ERANSKINA KOLONOSKOPIAREN EMAITZAK KUDEATZEA	97
VII. ERANSKINA PROGRAMAREN ALDAGAIK	117
VIII. ERANSKINA PROGRAMAREN KALITATE-IRIZPIDEAK (EUROPEAN COMMISSION, 2010)	125
IX. ERANSKINA SENTSIBILIZAZIOA ETA PRESTAKUNTZA	126
X. ERANSKINA PROGRAMAREN JARDUERAREN KALKULUAK ETA ARDURADUN NAGUSIAK	128
XI. ERANSKINA GUTUNAK	130
XII. ERANSKINA MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK	143
XIII. ERANSKINA OTIRIK EZ DUTEN PERTSONEN GONBIDAPENA	148
XIV. ERANSKINA IRADOKIZUNAK, KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK	157
XV. ERANSKINA ANATOMIA PATOLOGIKOA	158
XVI. ERANSKINA JARDUTEKO JARRAIBIDEAK, KOM-AREN FAMILIA-AURREKARIAK DITUZTEN PERTSONENTZAT	165

1. LABURDURAK

AEA: Arrisku Ertaineko Adenoma

AHA: Arrisku Handiko Adenoma

ASA: Estatu Batuetako anestesilogoen elkartearen sailkapen-irizpideak

ASR: Adinaren arabera doitutako tasak

ATA: Arrisku Txikiko Adenoma

BAE: Bezeroen Arretarako Eremua

BE: Biziraupen Erlatiboa

BI: Baimen Informatua

CLINIC/Osabide Integra: Euskadiko pazienteen datu klinikoetarako sarbidea

CMBD-Altak: Ospitaleko altei buruzko datuen gutxieneko multzoa

DB: Datu-basea

DBLO: Datuak Babesteko Lege Organikoa

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

EAG: Etengabeko Arretarako Gunea

ESI: Erakunde Sanitario Integratua

EUSTAT: Euskal Estatistika Erakundea

FIT (Faecal Immunochemical test): Gorozkien test immunokimikoa

GAD: Gradu Altuko Displasia

GBD: Gradu Baxuko Displasia

GestLab: Laborategiko probak kudeatzeko programa

HK: Historia Klinikoa

IKK: Identifikazio Korporatiboko Kodea

INDEF: Heriotzen indize nazionala

KOM: Kolon eta Ondesteko Minbizia

KOMBP: Kolon eta Ondesteko Minbiziaren Baheketa Programa

LA: Lesio Aurreratua (AEA+AHA)

LMAko medikua: Lehen Mailako Arretako medikua

LMAU: Lehen Mailako Arretako Unitatea

LMAUB: Lehen Mailako Arretako unitateburua

NA: Neoplasia Aurreratua

OGP: Osabide Global Primaria

OSABIDE: Pazienteak eta dokumentazio klinikoa kudeatzeko programa. Euskadiko Historia Klinikoa

OSAKIDETZA: Euskal osasun zerbitzua

OSN: Osasun Sistema Nazionala

OTI: Osasun Txartel Indibiduala

OZ: Osasun Zentroa

PKZ: Programaren Koordinazio Zentroa

PODak: Pazientearen oinarritzko datuak Lehen Mailako Arretan

SOH: Gorozkietan ezkutatutako odola

TOE: Tumoreen Ospitaleko Erregistroa

TPE: Tumoreen Populazio Erregistroa

TSOH: Gorozkietan odola dagoen aztertze proba

UAE: Urteko Aldaketa Ehunekoa

QALY: Kalitatearen arabera doitutako bizitza-urteen akronimoa


2. SARRERA

Kolon eta ondesteko minbiziari buruzko mundu-mailako datuak

Mundu osoan, kolon eta ondesteko minbizia (KOM) da gizonen artean hirugarren minbizirik ohikoena, eta bigarrena emakumeen kasuan. GLOBOCANen (Ferlay eta al., 2020)¹ azken kalkuluen arabera, 2020an 1.065.960 kasu berri inguru agertu ziren gizonen artean, eta 865.630 emakumeen artean. KOMa izan zen munduko minbizi-kargaren % 10 baino gehiago; gizonen kasuan, biriketako eta prostatako minbiziak gainditu zuten proportzio hori, eta, emakumeen kasuan, bularreko minbiziak soilik (1. grafikoa).

2020an, adinaren arabera estandarizatutako intzidentzia orokorra (ASR) 23,4koa izan zen KOMerako, 100.000 biztanleko, gizonen kasuan, eta 16,2koa, 100.000 biztanleko, emakumeen kasuan (1. grafikoa).

1. grafikoa. MUNDUAN INTZIDENTZIA HANDIENA DUTEN TUMOREAK, SEXUAREN ARABERA, 2020.





Iturria Global Cancer Observatory: Cancer Today IARC, Lyon, France. GLOBOCAN 2020. Hemen eskuragarri: <https://gco.iarc.fr/today/home>.

¹ Sung H, Ferlay J, Siegel RL, Laversanne M, Soerjomataram I, Jemal A, Bray F. Global Cancer Statistics 2020: GLOBOCAN Estimates of Incidence and Mortality Worldwide for 36 Cancers in 185 Countries. CA Cancer J Clin. 2021 May;71(3):209-249

KOMaren intzidentzia-tasak nabarmen aldatzen dira herrialde eta eskualde batzuetatik beste batzuetara, eta tasarik altuenak Australian eta Zeelanda Berrian, Europan, Ekialdeko Asian eta Ipar Amerikan daude. Intzidentzia-tasak 10 puntutan aldatzen dira bi sexuetan (1. eta 2. mapak).

1. eta 2. mapak.- KOLON ETA ONDESTEKO MINBIZIAREN INTZIDENTZIAREN BANAKETA MUNDUAN, SEXUAREN ARABERA. GLOBOCAN-2020




Balioetsitako intzidentzia-tasa altuenak Europaren hegoaldean eta iparraldean daude gizonentzat (ASIR 40,6 eta 39,2, 100.000 biztanleko, hurrenez hurren) eta Australian-Zeelanda Berrian eta Europaren iparraldean emakumeentzat (ASIR 29,2 eta 28,8, 100.000 biztanleko, hurrenez hurren) Intzidentzia-tasarik baxuenak, berriz, Asiaren erdialdean eta hegoaldean eta Afrikaren erdialdean daude gizonentzat (ASIR 6,6 eta 7,7, 100.000 biztanleko), eta Asiaren erdialdean eta hegoaldean eta Afrikaren mendebaldean emakumeentzat (ASIR 4,4 eta 5,7, 100.000 biztanleko, hurrenez hurren) (2. *grafikoa*).

KOMaren ondoriozko heriotza-tasak ere aldatu egiten dira mundu osoan, 5 puntu arte, gizonengan nahiz emakumeengan. 2020an, 515.637 gizon inguru hil ziren KOMaren ondorioz, eta 419.536 emakume, eta adinaren arabera estandarizatutako heriotza-tasa (ASMR), 100.000 biztanleko, 11,0koa izan zen gizonen artean, eta, 100.000 biztanleko, 7,2koa emakumeen artean (2. *grafikoa*).

Bi sexuetan, Europaren erdialdean eta mendebaldean daude balioetsitako heriotza-tasarik altuenak (ASMR: 20,2koa eta 11,0koa, 100.000 biztanleko, gizonengan eta emakumeengan, hurrenez hurren). Balioetsitako heriotza-tasa baxuenak, berriz, Asiaren hegoaldean eta erdialdean daude bi sexuetarako (ASMR, 3,9koa eta 2,5koa, 100.000 biztanleko, gizonengan eta emakumeengan, hurrenez hurren). Bizi-raupen-tasa, ordea, diagnostiko goiztiarrarekin eta tratamenduekin lotuta dagoenez, okerragoa da errenta baxuak dituzten herrialdeetan².


2. grafikoa. KOLON ETA ONDESTEKO MINBIZIAREN GUTXI GORABEHERAKO INTZIDENTZIA- ETA HERIOTZA-TASA ESTANDARIZATUAK.

²Allemani C, Matsuda T, DiCarlo V, Harewood R, Matz M, Niksic M, et al. Global surveillance of trends in cancer survival 2000-2014 (CONCORD-3): analysis of individual records for 317 513 025 patients diagnosed with one of 18 cancers from 322 population-based registries in 71 countries (CONCORD-2). Lancet. 2018; 391(10125):1023–75



Urte horretan, 5,3 milioi pertsona inguruk biziraun zioten minbiziari (aurreko 5 urteetan diagnostikatuta-koak). Bizirik atera ziren horiek minbizia izan zuten pertsona guztien % 10,4 izan ziren (3. grafikoa).

3. GRAFIKOA. 2020KO KASU PREBALENTEEN (5-URTE) GUTXI GORABEHERAKO KOPURUA, BI SEXUETAN.



Minbizi mota gehienetan bezala, KOMaren intzidentzia- eta heriotza-tasak nabarmen handitzen dira adi-narekin, eta kasu eta heriotza gehienak 50 urtetik gorakoen artean gertatzen dira. 2018an, 1,80 milioi kasu


inguru izan ziren, eta 0,18 milioi inguru (% 10) 50 urtetik beherakoen artean gertatu ziren; 1,07 milioi inguru (% 59) 50-74 urtekoen artean, eta 0,55 milioi inguru (% 31) 75 urtetik gorakoen artean (Ferlay et al., 2018).

Kolon eta ondesteko minbiziari buruzko mundu- eta estatu-mailako datuak

4. *grafikoan* ikusten denez, Espainia 10. tokian dago (Europako 27 herrialderen artean), 100.000 biztanleko 35,8 kasuko intzidentzia-tasarekin eta 100.000 biztanleko 11,5 kasuko heriotza-tasarekin. Espainian, 40.441 kasu berri atzeman ziren 2020an, eta, 2025era begira, kasuak 45.226ra ugarituko direla balioetsi da³. Hilkortasunari dagokionez, 2020an, KOMak 16.470 heriotza eragin zituen, eta 2025ean ere handitzeko joera izango du, kalkulatzen baita 19.026 heriotza eragingo dituela (5. *grafikoa*).

4. grafikoa. INTZIDENTZIA ETA HILKORTASUNA TASA HANDIENAK DITUZTEN EUROPAKO 20 HERRIALDE-ETAN.


GLOBOCAN 2020



5. grafikoa. KOM-AREN INTZIDENTZIAREN KALKULUA ESPAINIAN (2025, 2040).

³ European cancer information system. ECIS. Hemen eskuragarri: ecis.jrc.ec.europa.eu


ESPAINIAKO INTZIDENTZIA



Iturria: IARC Handbooks of cancer prevention

Hamar tumore nagusien banaketari dagokionez, Espainian, bi sexuak hartzen badira kontuan, KOMa da tumorerik ohikoena. KOMaren intzidentzia-tasak (ASIR) Europako batezbestekotik gora daude, baita bu-larreko, prostatako eta besikulako minbizietan ere. Alabaina, tumore horiexetan, heriotza-tasak Europako batezbestekotik behera daude, besikulako minbizian izan ezik. (6. grafikoa).

6. grafikoa.- ESPAINIAN ETA EUROPAN INTZIDENTZIA HANDIENA DUTEN 10 TUMOREEN BANAKETA. GLOBOCAN-2020.




2023rako kasu intzidenteen azken balioespen-txostenaren arabera (Espainiako Minbizi Erregistroen Sarea⁴), biztanle guztiak aintzat hartuz gero, Espainian koloneko eta ondesteko minbizia da sarriena, 42.721 kasu berrirekin (28.465 kolonean eta 14.256 ondestean).

Sexuari begiratuta, emakumeen artean KOMaren 16.364 kasu berri agertu ziren, eta gizonen artean 26.357. Mundu-mailan, biztanleria estandarrari egokitutako KOMaren tasa 37,9koa izan zen bi sexueta-rako, 100.000 biztanleko (% 95eko konfiantza-tartean (KT), 35,7-40,4).

Adin-taldeei dagokienez, KOMaren kasu intzidenteen kopurua 17.865koa da 65 urteko edo hortik gorako gizonengan, eta 8.046koa 45 eta 64 urte arteko gizonengan. Emakumeengan, aldiz, KOMaren kasu intzidenteen kopurua 11.002koa da 65 urtekoen edo hortik gorakoen artean, eta 4.955koa 45 eta 64 urte artekoengan.

Minbiziaren herrialde-profilari buruzko Espainiarako txostenean (ELGA, 2023)⁵, adierazten da minbiziak eragindako hilkortasuna Europako baxuenetakoa dela Espainian eta, era berean, 2011tik murriztu egin dela, emakumeengan nahiz gizonengan. Minbiziaren ondoriozko heriotza-tasa globalak bi aldiz altuagoak dira gizonengan, emakumeengan baino (batez ere, KOMari eta birikako minbiziari dagokienez); azken urteetan, ordea, minbiziagatik hiltzen diren gizonen kopurua azkarrago jaitsi denez, genero-arrakala ere murriztu egin da. (7. grafikoa).

7. grafikoa. MINBIZIAREN ONDORIOZKO HILKORTASUNA EUROPako HERRIALDEETAN. MINBIZIAREN ONDORIOZKO HILKORTASUNAREN ALDAKUNTZA 2011TIK 2019RA (ESPAINIA).




Txosten berean adierazten denaren arabera, Espainian 2019an minbiziaren ondorioz izandako heriotza guztiak aintzat hartuta, heriotza-tasak altuagoak izan ziren birikako minbizian, KOMean eta pankreako

⁴ Estimaciones de la Incidencia del Cáncer en España, 2023. Espainiako Minbizi Erregistroen Sarea (REDECAN), 2023.

⁵ ELGA (2023), Perfiles nacionales de cáncer: España 2023, EU Country Cancer Profiles, OECD Publishing, Paris.

minbizian, eta, ondotik, bularrekoan (emakumeengan) eta prostatakoan (gizonengan). Minbiziaren ondoriozko heriotza-kausa nagusi gehien-gehienak murriztu egin dira 2011tik, baita COMean ere (-%14). (8. grafikoa).

8. grafikoa. HILKORTASUNAREN ALDAKUNTZA 2011TIK 2019RA, TUMOREEN ARABERA




Kolon eta ondesteko minbiziko arrisku-faktoreak.

Kolon eta ondesteko minbizia garatzeko arrisku-faktore nagusia adina da, eta, 50 urtetik aurrera, arriskuak gora egiten du. Halaber, minbizi mota hori garatzeko arrisku handiagoa daukate aurretik kolon eta ondesteko minbizia edo polipoak izan dituztenek edo sindrome hereditarioak dauzkatenek, baita familia-aurrekariak dauzkatenek ere. Faktore horiek ezin daitezke aldatu, baina kolon eta ondesteko minbiziarekin lotuta dauden arrisku-faktore batzuk aldatzeko aukera dago.

Kolon eta ondesteko minbiziarekin lotutako arrisku-faktore aldagarrien artean, haragi gorri edo prozesatu asko jatea, tabakoa erre eta alkohola edatea eta geldirik egotea daude, besteak beste.

Espainian, tabakoa erretzea eta kutsadura atmosferikoarekiko esposizioa dira minbiziari lotutako arrisku-faktore nagusiak (9. grafikoa).


9. grafikoa. MINBIZIARI LOTUTAKO ARRISKU-FAKTORE ALDAGARRIAK ESPAINIAN.



Nota: Cuanto más cerca del centro está el punto, mejores resultados tiene el país en comparación con otros países de la UE. No hay ningún país en la «zona objetivo» blanca porque existe margen de mejora en todos los países y en todos los ámbitos.
Fuentes: Cálculos de la OCDE basados en la encuesta europea de salud por entrevista (EHIS, por sus siglas en inglés) de 2019 para las tasas de tabaquismo y sobrepeso u obesidad; estadísticas de salud de la OCDE 2022 y Sistema Mundial de Información sobre el Alcohol y la Salud (GISAH, por sus siglas en inglés) de la OMS para el consumo de alcohol (2020); la OMS para la vacunación contra el VPH (a través del formulario conjunto de la OMS y UNICEF para la notificación de datos sobre inmunización) (2020), y Eurostat para la contaminación atmosférica (2019).

Tabakoari dagokionez, Espainiako eguneroko erretzaileen ehunekoa (%) handiagoa da Europako batezbestekoa baino⁶. Faktore sozioekonomikoak eta ikasketen eta diru-sarreraren maila oso estu lotuta daude kontsumoarekin. 2019an, eguneroko erretzaileen ehunekoa % 25ekoa izan zen errenta baxuko pertsonengan, eta % 14koa diru-sarrera gehien zeuzkatenen tartean, 10. grafikoan ikus daitekeen moduan.

10. grafikoa. EGUNEROKO ERRETZAILEEN EHUNEKOA (%), DIRU-SARREREN ARABERA, 2019.




(Europako batezbesteko haztatua, Eurostatek kalkulatua). Datuen iturria: Eurostaten datu-basea. 2019.


⁶ ELGA (2023), Perfiles nacionales de cáncer: España 2023, EU Country Cancer Profiles, OECD Publishing, Paris.

Mapa hauetan (3. eta 4. MAPAK), Europar Batasuneko (EB) eguneroko erretzaileen ehunekoa eta EBko 15 urtetik gorako biztanle bakoitzeko alkohol-kontsumoa jasotzen dira, hurrenez hurren.

3. mapa. EGUNEROKO ERRETZAILEEN EHUNEKOA (%). EB, 2019.




4. mapa. 15 URTETIK GORAKOEK EDANDAKO ALKOHOL-KOPURUA (litroak), ehunekotan (%). EB, 2019.



Erretzaile pasiboen kopuruari dagokionez, berriz, Espainiak dauzka emaitza onenetarikoak minbiziaren arloko desberdinkerian. 5. mapan, EBko erretzaile pasiboen ehunekoa (%) ikusten dugu.

5. mapa. ERRETZAILE PASIBOAK (%), BI SEXUETAN. EB, 2019.



Kolon eta ondesteko baheketan dauden desberdinkeriak

Kolon eta Ondesteko Minbiziaren Euskadiko Baheketa Programan, lau adierazlek eragiten dute FIT (Faecal Immunochemical Test) baheketan parte hartzea: generoak, adinak, maila sozioekonomikoak eta bizikidetz-egoerak.

Generoari dagokionez, azken hamar urteetan emakumeek gizonak baino gehiago hartu dute parte, % 4-5eko aldearekin. Halaber, emaitza positibo baten ondoren, emakumeek atxikipen handiagoa dute kolonoskopiarekiko. FIT testean, parte-hartze txikiagoa izan dute gizonak, adingabeek, osasun-egoera hobe eta txarragoa dutenek, bakarrik bizi direnek eta maila sozioekonomiko handiagoa eta txikiagoa dutenek⁷

Era berean, 2017ko Osasun Inkesta Nazionaleko datuak aztertuta ikusi dugunez, adinak, sexuak eta autonomia-erikidegoak ez ezik, hiru faktore erabakigarri hauek ere baldintzatzen dute FIT testa egiteko probabilitatea: etxeko hileko diru-sarrerek, hezkuntza-mailak eta klase sozialak ere baheketarako irispidean eragiten dute, modu independentean⁹.

Inkestatuen ehuneko handiago batek onartu zuen proba egitea Euskadin (75,05; KT % 95: 71,05-78,66) eta Nafarroan (60,80; KT % 95: 55,16-66,16), eta gutxiago Ceutan (% 7,25; KT % 95: 3,03-16,35) eta

⁷ Mendizabal Gallastegui N., Portillo Villares, I., Bacigalupe De La Hera, A. Desigualdades sociales en la cobertura y participación en el Programa de Cribado Cáncer Colorrectal de Euskadi. 2021.

Extremaduran (% 9,43; KT % 95: 6,78-12,97). Alde handiak ikusi ditugu FIT testaren parte-hartzean, etxeko hileko diru-sarreraren arabera (>4.500 € vs <1.050 €: DP: % 18,48; KT % 95: 9,38-27,58), hezkuntza-maila (3. maila vs 1. maila: DP: % 4,38; KT % 95: % 7,30-14,64) eta klase soziala (altua vs baxua: DP: % 4,28; % 1,93-6,62), baina aseguru pribatua edukitzeak ez du eraginik ($p=0,916$). Adinaren, sexuaren eta autonomia-erkidegoaren arabera doituta, >4.500 euroko hileko diru-sarrerak (OR=2,03; KT % 95: 1,34-3,09), goi-mailako hezkuntza (OR=1,27; KT % 95: 1,10-1,48) eta klase sozial altua (OR=1,19; KT % 95: 1,06-1,33) lotuta daude noizbait FIT testa egin izateko aukera handiagoarekin.⁸

Kolon eta Ondesteko Minbiziaren Euskadiko Baheketa Programaren esparrua.

Euskadiko 2030eko Osasun Planeari⁹, osasuna hobetu eta morbidimortalitatea murrizteko helburuaren barruan sartzen da kolonaren baheketa estaltzea eta desgaitasunaren arabera doitutako bizitza-urte (DDBU) asko galtzea eragiten duten gaixotasunak eta desgaitasunak ekitate-, kalitate- eta eraginkortasun-irizpi-deekin jorratzea.

Euskadiko 2018-2023ko Onkologia Planaren¹⁰ barruan, kolon, ondeste eta uzki minbiziaren datuak jasotzen dira. 2009tik 2013ra bitartean, gizonek 6.916 kasu intzidente erregistratu zituzten, eta Europako biztanleria estandarrari adinaren arabera doitutako tasa (AAT) 91,7 kasukoa izan zen 100.000 biztanleko; emakumeek, berriz, 4.030 kasu intzidente izan zituzten, eta AATa 72,2 kasukoa izan zen 100.000 biztanleko. Halaber, 2011tik 2015era bitarteko hilkortasunari buruzko datuak jasotzen dira: 2.547 gizon hil ziren kolon, ondeste eta uzki minbiziagatik (29,2ko AATa 100.000 biztanleko), eta 1.672 emakume hil ziren (13,6ko AATa 100.000 biztanleko). Kolon eta ondesteko minbizian, bost urterako biziraupena (2000-2012ko datuak) % 56,8koa da gizonengan, eta % 57,3koa emakumeengan. Minbizia laneko gaixotasuna denean, EAEn, laneko tumorerik ohikoenak birrikakoa, prostatakkoa, kolonekoa eta maskurikoa izan ziren 2012an.

Honako hauek dira Baheketa Programaren helburuak, zeinak Onkologia Planeari jasotzen baitira: Kolon eta Ondesteko Minbiziaren Baheketa Programaren benetako estaldura-tasak areagotzea (xede-populazio teorikoaren % 90engana iristea gutxienez) eta baheketaren hobekuntza eta ezarpenaren aurrera egitea. Koloneko minbiziaren adierazleen jarraipena egitean, Osasun Sailaren Minbizia eta Hilkortasun Erregistroen arabera, ikusi genuen intzidentziak goranzko joera zuela hala gizonengan, nola emakumeengan, urteko aldaketa-ehunekoa (UAE) ere gorakorra baita, bat etorrita biztanleriaren baheketarekin. Gizonen artean, hilkortasunak beheranzko joera izan zuen; ez, ordea, emakumeen artean (12. grafikoa).



12. grafikoa. KOLON, ONDESTE ETA UZKI-KANALEKO (GNS-10: C18-C21) TUMORE GAIZTOEN INTZIDENTZIA-TASAREN (2000-2013) ETA HERIOTZA-TASAREN (2000-2015) BILAKAERA, SEXUAREN

ARABERA

⁸ Aginagalde-Llorente, AH. Desigualdades sociales en el cribado de cáncer colorrectal. 2022.

⁹ Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila. Euskadiko Osasun Plana 2030. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco 2023. Vitoria-Gasteiz. 138 or.. Hemen eskuragarri: https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop

¹⁰ Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila. Euskadiko Onkologia Plana 2018-2023 Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco 2018. Vitoria-Gasteiz. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan_oncologico_2018_2023/eu_def/adjuntos/euskadi-onkologia-plana-2018-2023.pdf



3. KOLON ETA ONDESTEKO MINBIZIAREN EUSKADIKO BAHEKETA-PROGRAMA (KOMBP)

- a) Populazio osorako. 50 eta 74urte bitarteko gizon eta emakumeei zuzendua (778.359 pertsona: 400.181 emakume eta 378.178 gizon – *Eustat, 2023-01-01ean*).
- b) Bi urtean behin. Test immunokimiko kuantitatiboa (FIT). Mozketa-puntua: 20µg Hb/g gorozki. Lagin bakarra.
- c) Kolonoskopia sedazioarekin kasu positibo guztietan
- d) Lehen Mailako Arretaren inplikazioa
- e) Informazio-sistema interoperatiboa historia klinikoarekin eta datu-base klinikoekin (prozeduren erregistroa, ospitaleko altak, ospitaleko tumoreen eta populazioaren eta hilkortasunaren erregistroak).
- f) Koordinazioa lantalde baten bidez zentralizatua: Programako mediku koordinatzaile bat, 2 erizain eta jaio aurreko baheketa-programarekin partekatutako 3 administrari.
- g) Prozesuen eta emaitzen kalitatezko sistema bat, zeinak aukera emango baitu Praktika Klinikoen Gidei jarraikiz ezarri diren adierazleak modu sistematiko eta jarraituan monitorizatu eta ebaluatzeko eta hobekuntza-neurriak martxan jartzeko.
- h) Autonomia-erkidegoko, estatuko eta nazioarteko proiektu eta egitasmoetan parte hartzea, ezagutzak eta estrategia komunak partekatzeko


3.1. Emaitza nagusiak

3.1.1. Estaldura


2014ko lehen hiruhilekoan, KOMBPren lehen gonbidapenean, xede-populazioaren % 100 inguru estaltzea lortu zen, eta helburu hori bete zuen lehen autonomia-erkidegoa izan ginen. Horretarako, baliabideetan inbertsio nabarmena egin behar izan zen, bereziki endoskopiaren alorrean, hori baita kolon eta ondesteko minbizia bahetzeko programa guztien oinarria.

Baheketa-programaren ezarpena, 2009 eta 2022 artekoa, 13. grafikoan ikus daiteke. Kalkulu hori egiteko, ESlen estaldura hartu da abiapuntutzat; izan ere, LMAUen bidez egiten da gonbidapena, bi urtean behin. Urtero, 265.000 pertsonari bidaltzen zaie gonbidapena, batez beste.

COVID-19aren pandemiak asko eragin zuen estalduran, gonbidapenak eten behar izan zirelako; izan ere, arreta lehenetsi behar izan zen, eta segurtasun-protokoloak aldatu behar izan ziren. Gainera, langile askok baja hartu zuten lanean. 2020aren amaieran, aurreikusitako plangintzarekin alderatuta, biztanleriaren % 48 zegoen gonbidatuta; atzerapen hori pixkaka suspertu zen 2021ean eta 2022an, eta bere onera itzuli zen 2023ko lehenengo seihiilekoan.

13. grafikoa. ESTALDURA, BAHEKETA-TXANDEN (GONBIDAPENEN) ARABERA 2009-2023

3.1.2. Parte-hartzea

Programako parte-hartzearen tasek joera positiboa izan dute 2009-2022 aldian, nahiz eta txikiagoa izan gizonen artean, emakumeen artean baino. Halere, 2011tik, bi kasuetan ikusi dugu parte-hartzearen tasa handiagoa dela Praktika Klinikoko Gidaliburuan (2010) eta Minbiziaren aurkako 2021eko Estrategian gomendatutakoa baino (% 65eko parte-hartzea gomendatzen da). 2020an pandemiaren ondorioz beherakada egon bazen ere, tasa hori suspertzen joan da hurrengo urteetan, nahiz eta pandemiaren aurretiko zifretara iritsi ez (2018).

14. grafikoa. KOLON ETA ONDESTEKO MINBIZIAREN BAHEKETA-PROGRAMAKO PARTE-HARTZEAREN TASAREN BILAKAERA. EAE. 2009-2022.


Parte-hartzearen tasa handia bada ere eta Europako gidaliburuaren gomendioak (% 65) eta antzeko programetako parte-hartzea gainditzen baditu ere¹¹⁻¹²⁻¹³⁻¹⁴, azpimarratu egin behar dugu alde adierazgarriak ikusi ditugula sexuaren arabera, KOMaren populazio-baheketako beste programa batzuetan gertatzen den bezala¹⁵⁻¹⁶. Era berean, aldeak ikusi ditugu erakunde sanitario integratuaren (ESI), Lehen Mailako Arretako Unitatearen (LMAU) eta osasun-zentroaren (OZ) arabera, eta, era berean, parte-hartze txikiagoa erregistratu da gabezia-indize altua duten pertsonen artean, Erresuma Batuko Osasun Sistemaren (NHS) programan ere ikusi bezala^{17,18,19,20}

Parte-hartzearen tasa, bestalde, beste baheketa-metodo batzuetan baino altuagoa da (biztanleriaren onargarritasuna), baina, Desberdinak taldeak egindako berrikuspen sistematikoak adierazten duenaren arabera, nabarmentzekoa da zenbait biztanleria-taldek ez dituztela programaren onurak jasotzen desberdinkeria sozialak direla-eta.²¹

¹¹ Bakker CK, Jonkers D, Smits K, Mesters I, Masclee A, Stockbrügger R. Participation in colorectal cancer screening trials after first-time invitation: a systematic review. *Endoscopy* 2011; 43:1059-1086.

¹² Clarke N, Sharp L, Osborne A, Kearney PM. Comparison of Uptake of Colorectal Cancer Screening Based on Fecal Immunochemical Testing (FIT) in Males and Females: A Systematic Review and Meta-analysis. *Cancer Epidemiol Biomarkers Prev*. 2015;24;1:39-47

¹³ Lo SH, Halloran S, Snowball J, Seaman H, Wardle J, von Wagner C. Colorectal cancer screening uptake over three biennial invitation rounds in the English bowel cancer screening programme. *Gut*. 2015; 64;2:282-91.

¹⁴ Kapidzic A, Grobbee EJ, Hol L, van Roon AH, van Vuuren AJ, Spijker W, et al. Attendance and Yield Over Three Rounds of Population-Based Fecal Immunochemical Test Screening. *The American Journal of Gastroenterology*. 2014;109;8:1257-64

¹⁵ Portillo I, Idigoras I, Ojembarrena E, Arana E, Zubero MB, Pijoán JI et al. Principales resultados del programa de cribado de cáncer colorrectal en el País Vasco. *Gac Sanit*. 2013 ; 27 ; 4: 358-361

¹⁶ Clarke N, Sharp L, Osborne A, et al. Comparison of uptake of colorectal cancer screening based on fecal immunochemical testing (FIT) in males and females: a systematic review and meta-analysis. *Cancer Epidemiol Biomarkers Prev* 2015;24:39-47.

¹⁷ Hurtado JL, Bacigalupe A, Calvo M, Esnaola S, Mendizabal N, Portillo I, Idigoras I, Millán E, Arana-Arri E. Social inequalities in a population based colorectal cancer screening programme in the Basque Country. *BMC Public Health* 2015 DOI: 10.1186/s12889-015-2370-5.

¹⁸ Christian von Wagner et al. Inequalities in Participation in an Organized National Colorectal Cancer Screening Programme: Results from the First 2.6 Million Invitations in England. *International Journal of Epidemiology*. 2011: 40; 3: 712-18, doi:10.1093/ije/dyr008

¹⁹ Unanue-Arza, S.; Idigoras-Rubio, I.; Fernández-Landa, M.J.; Bilbao-Iturribarria, I.; Bujanda, L.; Portillo, I. Analysis of Post-Colonoscopy Colorectal Cancer and Its Subtypes in a Screening Programme. *Cancers* 2021, 13, 5105.

²⁰ Solís-Ibinagaitia M, Unanue-Arza S, Díaz-Seoane M, Martínez-Indart L, Lebeña-Maluf A, Idigoras I, Bilbao I and Portillo I (2020) Factors Related to Non-participation in the Basque Country Colorectal Cancer Screening Programme. *Front. Public Health* 8:604385. doi: 10.3389/fpubh.2020.604385

²¹ Inequalities in participation in colorectal cancer screening programmes: a systematic review. Isabel Mosquera, Nere Mendizabal, Unai Martín, Amaia Bacigalupe, Elena Aldasoro, Isabel Portillo, from the Desberdinak Group. *European Journal of Public Health*, Volume 30, Issue 3, June 2020, Pages 558-567, <https://doi.org/10.1093/eurpub/ckz236>

3.1.3. Programaren onurak

Programaren emaitzak, orain arte, bat datoz Praktika Klinikoaren Europako Gidarekin eta populazio-baheketei buruz argitara atera diren azterlanekin (1. taula)²²⁻²³. EAEko 2018ko Osasun Inkestaren arabera (EAEOI), programan parte hartu zutenen prebalentziak gora egin zuen adin-talde guztietan, 2013arekin alderatuta. Emakumeen artean, prebalentziak % 90ekoak edo handiagoak dira adin-talde guztietan; gizonen artean, ordea, aldea dago gazteenen eta zaharrenen prebalentzietan: gazteena % 81ekoa da, eta nagusiena (% 91koa). Hots, aldea 10 portzentaje-puntukoa da. Gainera, ez dugu atzeman lotura zuzenik klase sozialaren eta ikasketa-mailaren eta parte-hartzearen prebalentziaren artean.²⁴ Hala, bada, parte-hartze horrek tasa handiagoak dauzka, eta ez dugu desberdinkeriarik hauteman maila sozioekonomikoari eta hezkuntza-mailari dagokienez. Alabaina, horrek ez du bat egiten programaren erregistroekin⁸; agian, beste sistema batzuetan ere (pribatuan, lanekoan) baheketa eskaintzen delako.

Estatuko nahiz nazioarteko beste programa batzuei dagokienez, litekeena da parte-hartzearen tasa altuak zerikusia izatea programaren antolaketarekin (etxera kita bidaltzea) eta Lehen Mailako Arretaren inplikazioarekin^{21,25}

1. taula POSITIBOTASUNAREN, KOLONOSKOPIAREN ONARPENAREN ETA DETEKZIO-TASEN ADIERAZLEAK

TASAK	Euskadi, 2009-2022			Europako gida
	Gizonak	Emakumeak	Bi sexuak	Bi sexuak
PARTE-HARTZEAREN TASA (baliozko gonbidapenen gaineko %a)	% 67,84	% 72,92	% 70,47	>% 65
POSITIBOEN TASA (parte-hartzaileen gaineko %a)	% 6,5	% 4,16	% 5,25	% 4-11

²² Kapidzic A, van de Meulen P, van Roon AH, Looman CW, Lansdorp- Vogelaar I, van Ballegooijen M, et al: Gender differences in fecal immunochemical test performance for early detection of colorectal neoplasia. Clin Gastroenterol Hepatol 2015; pii: S1542-3565;15;00162-7

²³ Portillo I, Arana-Arri E, Idigoras I, Espinás JA, Pérez-Riquelme F, de la Vega M, González A, Ocea E, Vanaclocha M, Ibañez J, Salas D eta Cribea taldea. CRIBEA proiektua: Lesiones detectadas en seis Programas Poblacionales de Cribado de Cáncer Colorrectal en España. Rev Esp Salud Pública 2017; 91; otsailak 20, e1-e10.

²⁴ EAEko Osasun Inkesta.. 2018 (EAEOI 2018). 6. kapituluak: Osasun- eta zaintza-zerbitzuak. Minbiziaren baheketa-programak.

²⁵ Unanue-Arza S, Arana-Arri E, Portillo I, Arostegui I. Implicación de los profesionales de atención primaria en el programa de detección precoz de cáncer colorrectal del País Vasco. Rev Esp Salud Pública. 2021; 95. liburukia: urtarrilak 26 e1-11.

BERRESPEN-KOLONOSKOPIA-REKIKO ATXIKIPENA, BEHIN BETIKO DIAGNOSTIKOAREKIN (positiboen gaineko %a)	% 92,45	% 92,92	% 92,65	90–95
ARRISKU BAXUKO ADENOMAREN DETEKZIO-TASA x 1.000 parte-hartzaile	% 11,72	% 7,185	% 9,29	—
MINBIZIA INBADITZAILEAREN DETEKZIO-TASAK $\geq$ pT1 x 1.000 parte-hartzaile	% 2,99	% 1,5	% 2,19	% 1,3-9,5
LESIO AURRERATUEN DETEKZIO-TASA (LA=AEA + AHA) x 1.000 parte-hartzaile (1-3 adenomak eta/edo % 25 iletsua eta/edo maila altuko displasia)	% 27,795	% 10,97	% 18,78	—
NEOPLASIA AURRERATUAREN (NA) DETEKZIO-TASA = AA+KOM x 1.000 parte-hartzaile	% 30,78	% 12,47	% 20,97	—
KOM-AREN BALIO IRAGARLE POSITIBOA	% 4,59	% 3,61	% 4,17	% 4,5-8,6
LA-REN BALIO IRAGARLE POSITIBOA	% 42,43	% 26,09	% 35,48	—
NA-REN BALIO IRAGARLE POSITIBOA	% 42,74	% 26,35	% 35,77	—

Iturria: Guk geuk egina (Kolon eta Ondesteko Minbiziaren Euskadiko Baheketa Programaren datuak; Europako PKG, 2010).


Detekzio-tasetan ez ziren sexuen arteko aldeak soilik agertu. Horrez gain, ikusi zen gizonen artean lesio aurreratuen tasak handiagoak direla, eta are altuagoak gabezia handiagoko kintiletan badaude^{26,14}

2009-2022 aldian 4.249 KOM kasu hauteman ziren programan (itxitako kasuak), eta horien % 63,26 gizonen artean hauteman ziren (2. taula). Kasuen % 70,6 hasierako estadioetan hauteman ziren. 15. grafikoan ikusten denez, hautemandako kasuek gora egiten dute adinarekin batera. Hala, datuak bat datoz tumore honen intzidentziari dagokionez espero zenarekin. Lehen tratamenduari dagokionez, kasuen % 29n tratamendu endoskopiko erradikala egin zen: pT1 kasuetan egin zen, 1 mm-tik gorako erauzketa-ertzekin, ebidentziaren arabera (16. grafikoa).

²⁶ Portillo I, Idigoras I, Ojembarrena E, Arana E et al. Lesiones detectadas en el programa de cribado de cáncer colorrectal en el País Vasco: primera ronda 2009-2011. Gastroenterol Hepatol. 2013 ; 36 ; 5: 301–308

2. taula PROGRAMAK HAUTEMANDAKO MINBIZI INBADITZAILEAK, SEXUAREN ARABERA (2009-2022)

MINBIZI INBADITZAILEAK	Euskadi, 2009-2022			
	Gizonak (kop; %)	Emakumeak (kop; %)	Aldea % (KT % 95)	Esan- gura
HASIERAKO ESTADIOA I eta II	1.941 (72,2)	1.058 (67,8)	4,43 (1,59 – 7,27)	0,001
ESTADIO AURRERATUA III eta IV	727 (27,0)	484 (31,0)	-3,96 (-1,14 – -6,78)	0,003
ESTADIO EZEZAGUNA	20	19	-	-
PROGRAMAK DETEK- TATUTAKO MINBIZI INBADITZAILEAK GUZTIRA	2.688	1.561	-	-

15. grafikoa. PROGRAMAK HAUTEMANDAKO KOLON ETA ONDESTEKO MINBIZIEN BANAKETA, ADIN-TALDEEN ARABERA (2009-2022)


16. grafikoa. PROGRAMAKO KOM KASUETAN EGINDAKO LEHEN TRATAMENDUA (2009-2022).



3.1.4. Programaren ondorio kaltegarriak

Hona hemen programak izandako ondorio kaltegarri nagusiak:

- **Positibo faltsuak:** testak emaitza positiboa eman ondoren, kolonoskopian ez da aurkitu adenoma aurreraturik edota kolon eta ondesteko minbizirik.
- **Negatibo faltsuak** (bitarteko minbizia), bi motatakoak:
 - o **FIT bitarteko minbizia:** FIT emaitza negatiboa (–) eta KOM diagnostikoa hurrengo gonbidapena baino lehen.
 - o **Kolonoskopia osteko bitarteko minbizia:** FIT emaitza positiboan (+) diagnostikoa berresteko kolonoskopia baten ondoren gomendatutako jarraipena baino lehen diagnostikatutako KOM
- **Kolonoskopiaren osteko konplikazioak:** kolonoskopia egin eta hurrengo 0-30 egunetan gertatzen diren konplikazioak^{27,28}.

Efektu horiek sistematikoki ari dira monitorizatzen, haiek minimizatzeko aukera emango duten jardunbideak ezartze aldera. Positibo faltsuen tasak gora egin du, baheketa-txandek gora egin ahala. Handiagoa da emakumeen artean, gizonen artean baino; hala ere, orain arte ez da aurkitu halakoak minimizatzeko metodo eraginkor eta efizienterik^{29,30}.

2022ko abenduaren 31ra arte, konplikazio larriak (odoljario digestibo baxua transfusioarekin, zulaketa tratamendu kontserbadore edo kirurgikoarekin, postpolipektomia-sindromea edota ingresua eskatzen duten edota heriotza dakarten sedazio-arazoak) 375 izan ziren 55.959tik (% 6,7) gizonengan, eta 262 40.126tik (% 6,5) emakumeengan.

²⁷ Arana-Arri E, Imaz-Ayo N, MJ, Idigoras I, Bilbao I, Bujanda L, et al. Screening colonoscopy and risk of adverse events among individuals undergoing fecal immunochemical testing in a population-based program: A nested case-control study. United European Gastroenterol J. 2018 Jun; 6(5): 755–764.doi: 10.1177/2050640618756105

²⁸ Mercedes Vanaclocha-Espia, Josefa Ibáñez B, Ana Molina-Barceló, María José Valverde-Roigb, Elena Pérezb, Andreu Nolasco, Mariola de la Vegad, Isabel Diez de la Lastra-Boschd, María Elena Ocejae, Josep Alfons Espinàs, g, Rebeca Fontf, g, Francisco Pérez-Riquelmeh, i, Eunáte Arana-Arrij, Isabel Portillo, Dolores Salasa, b, *, CRIBEA Group1.Risk factors for severe complications of colonoscopy in screening programs. <https://doi.org/10.1016/j.ypmed.2018.11.010>

²⁹ Cristina Alvarez-Urturi, Montserrat Andreu, Cristina Hernandez, Francisco Perez-Riquelme, Fernando Carballo, Akiko Ono et al. Impact of age and gender-specific cut-off values for the fecal immunochemical test for hemoglobin in colorectal cancer screening. Digestive and Liver Disease 2016. DOI.org/10.1016/j.dld.2016.02.001

³⁰ Arana-Arri E, Idigoras I, Uranga B, Perez R, Irurzun A, Gutierrez-Ibarluzea I, Fraser C, Portillo I, EUSKOLON group. Population-based colorectal cancer screening programmes using a faecal immunochemical test: should faecal hemoglobin cut-offs differ by age and sex? BMC Cancer DOI 10.1186/S12885-017-3555-3

Bitarteko minbiziei dagokienez, ikusi zen horien kokapena, estadioa eta biziraupena nabarmen desberdina zirela programan hautemandako minbiziekiko eta pronostiko hobea zutela.^{21,31}

3.1.5. Programaren inpaktua

Osasun-programen eragina neurtzea ezinbestekoa da populazio-mailan zenbaterainoko onura dakarten jakiteko. Guk intzidentziaren eta hilkortasunaren erregistroak ditugu, eta, horiei esker, interbentzioaren aurreko eta osteko ebaluazioa egiteko aukera daukagu.

Programaren eraginkortasuna kalkulatzeko, azterlan bat egin zen MISCAN-Colon eredua erabiliz. Haren bitartez, 30 urterako simulazio bat egin zen, programaren benetako datuekin, eta adierazle hauek lortu ziren:

- Intzidentziaren murrizketa: % 16,3 (% 17,2 gizonak eta % 14,7 emakumeak)
- Hilkortasunaren murrizketa: % 26,1 (% 28,1 gizonak eta % 22,4 emakumeak)
- Galdutako bizitza-urteen murrizketa: % 21 (% 22,6 gizonak eta % 18,4 emakumeak)

Grafiko hauetan ikusten den moduan, gaur egun aldaketa-prozesuan gaude hala intzidentziari nola hilkortasunari dagokienez^{32,33}.

Programak 2018/12/31ra arte hautemandako eta hauteman gabeko KOM kasu guztiak aztertuz, emaitza hauek lortu ziren test immunokimiko kuantitatiborako (FIT) (3. taula):

3. taula FITaren sentikortasuna eta espezifikotasuna (2009-2022)

FIT (2009-2022)	Gizonak	Emakumeak	Bi sexuak
Sentikortasuna	% 88,5 KT % 95 (87,1-89,7)	% 91,2 IC % 95 (89,5-92,6)	% 88,2 IC % 95 (87,2-89,2)

³¹ Portillo I, Arana-Arri E, Idigoras I, Bilbao I, Martínez-Indart L, Bujanda L, Gutierrez-Ibarluzea I. Colorectal and interval cancers of the colorectal cancer screening program in the Basque Country (Spain). World Gastroenterol 2017; 23; 15: 2731-2742.


³² Idigoras I, Arrospe A, Portillo I, Arana-Arri E, Martínez-Indart L, Mar J, de Koning HJ, Lastra R, Soto-Gordoa M, van der Meulen M, Lansdorp-Vogelaar I. Evaluation of the Colorectal Cancer Screening Programme in the Basque Country and the effectiveness based on the MISCAN-colon model. BMC Public Health 2017. DOI 10.1186/S12889-017-4639-3.

³³ Arrospe A, Idigoras I, Mar J, de Koning H, van der Meulen M, Soto-Gordoa M, Martinez-Llorente JM, Portillo I, Arana-Arri E, Ibarrondo O, Lansdorp-Vogelaar I. Cost-effectiveness and budget impact analyses of a colorectal cancer screening programme in a high adenoma prevalence scenario using MISCAN-Colon microsimulation model. BMC Cancer. 2018 Apr 25;18(1):464. doi: 10.1186/s12885-018-4362-1. PMID: 29695234; PMCID: PMC5918894.


Espezifikotasuna	% 93,8 KT % 95 (93,7-93,8)	% 96,1 KT % 95 (96,1-96,2)	% 95,1 KT % 95 (95,0-95,1)
------------------	-------------------------------	-------------------------------	---


Eraginkortasunaren datuek gaintitu egiten dute bibliografian test mota honetarako aurkitutakoa; hala ere, funtsezkoa da datu horiek minbizi- eta hilkortasun-erregistroekin sistematikoki monitorizatzen jarraitzea, hobekuntza-arloak identifikatzeko (ondorio kaltegarriak gutxitzea).

17. grafikoa. INTZIDENTZIAREN MURRIZKETAREN ZENBATESPENA, MISCAN-COLON EREDUAREN ARABERA



18. grafikoa. HILKORTASUNAREN MURRIZKETAREN ZENBATESPENA, MISCAN-COLON EREDUAREN ARABERA



19. grafikoa. LYL-EN MURRIZKETA (GALDUTAKO BIZITZA-URTEAK)


4. KOLON ETA ONDESTEKO MINBIZIAREN (KOM) BAHEKETAREN OINARRIAK

4.1. Kolon eta ondesteko minbizia bahetzeko beharrezko baldintzak

Kontuan eduki behar da baheketa-programa bat probak egite hutsetik harago doala: diziplina anitzeko jarduera koordinatuen multzo bat da. Jarduera horiek denboran jarraituak dira, eta helburu komun batzuk lortzera daude bideratuta. Ebidentzia zientifikoak onetsitako kalitate-irizpide eta -estandarretan oinarritzen da, onurak bermatzen eta arriskuak murrizten laguntzen dutelako; hau da, martxan jarri aurretik, eragin-kortasunaren eta kostu-eraginkortasunaren azterlanak egin dira, osasun-sistemen inplikazioa handia da-eta. Herritarrei gaixotasunaren baheketari buruzko informazioa emanez hasten da prozesua, eta baheketan aurkitutako kasu positibo guztien jarraipen eta tratamenduarekin amaitzen.

Baheketa-programa batean, proba bat edo gehiago egiten zaizkie bilatzen den gaixotasunaren zantzurik edo sintomarik ez duen populazio bateko kideei, baldin eta gaixotasunaren arrisku jakin batekin identifikatzen dituen ezaugarriren bat badute; izan ere, gaixotasun hori goiz detektatu eta tratatzen bada, hobetu egin daiteke³⁴.

Baheketaren xedea gaixotasuna goiz –sintomarik gabeko fasean– detektatzea da, eraginkorragoa edo aplikatzeko errazagoa izan ohi den tratamendu bat eman ahal izateko. Wilson-ek eta Jungner-ek garatu zituzten baheketaren inplementazioa ebaluatzeko printzipioak, 1968an³⁵, eta Osasun Sistema Nazionalako lantaldeak 2011n aldatu eta egokitu zituen, eta berrikusi³⁶.

Ondoren, printzipio horiek egokitu eta modernizatzeko berrikuspena egin zen, eta akordio batera heldu, populazioaren baheketa-programei buruzko erabakien berri emateko.³⁷

³⁴ Colorectal cancer screening. IARC Handbook Cancer Prevention. 17. bol. 2019:1–300. Hemen eskuragarri: <http://publications.iarc.fr/573>.

³⁵ Wilson JMG, Jungner G: Principles and practice of screening for disease. Public Health Papers. Osasunaren Mundu Elkartea, 1968.

³⁶ Osasun eta Kontsumo Ministerioko lantaldea. Documento Marco sobre cribado poblacional. 2011. Hemen eskuragarri: https://www.msssi.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/docs/Cribado_poblacional.pdf

³⁷ Consolidated principles for screening based on a systematic review and consensus process. Mark J. Dobrow, Victoria Hagens, Roger Chafe, Terrence Sullivan and Linda Rabeneck. CMAJ April 09, 2018 190 (14) E422-E429; DOI: <https://doi.org/10.1503/cmaj.171154>

- Osasun arazo larria izatea
- Ongi zehaztutako gaixotasuna izatea, historia natural ezaguna duena
- Latentzia-aldi detektagarria izatea
- Kostu eta eraginkortasunaren aldetik egokiak diren lehen mailako prebentzio esku-hartzeak ezarrita egotea
- Baheketa-proba:
- Erraza eta segurua
- Baliozkoa, fidagarria eta efizientea
- Onargarria
- Diagnostiko- eta tratamendu-prozesuaren gaineko ebidentzia zientifikoa egotea
- Sintomak agertu aurreko fasean eraginkorragoa den tratamendu bat egotea
- Baheketa programa baten eraginkortasuna frogatuta egotea
- Programak ekarriko dituen onurak balizko arriskuak baino handiagoak izatea
- Xede-populazioa ongi zehaztuta egotea
- Neurrizko kostua izatea
- Programa osoa onartzeko modukoa izatea
- Ebaluazioa eta kalitatea aurreikusitakoaren arabera izatea

Kolon eta ondesteko minbizia bereziki egokia da baheketa-programa bat egiteko, Wilsonek eta Jungnerrek ezarritako printzipioei eta Osasun Sistema Nazionalen adostutako irizpideei jarraikiz³⁸. Oinarrizko zerbitzu-zorroan sartuta dago.

2. puntuan aipatu dugun moduan, KOMa oso osasun-arazo larria da gurean, hala intzidentziagatik nola hilkortasunarengatik, eta, eskura dagoen ebidentziaren arabera, goiz tratatzen bada, pronostikoak eta biziraupenak hobera egiten dute.³⁹

³⁸ Lönnberg S, Sëkerija M, Malila N, Sarkeala T, Leja M, Májek O et al Cancer screening: policy recommendations on governance, organization and evaluation of cancer screening. European guide on quality improvement in comprehensive cancer control. 2017. Albrecht T, Kiasuwa R, Van den Bulcke M (editoreak). Ljubljana: National Institute of Public Health; Brusela: Scientific Institute of Public Health. 4. kapitulu: 39-76. Hemen eskuragarri: https://cancercontrol.eu/archived/uploads/images/Guide/pdf/Can-Con_Guide_FINAL_Web.pdf

³⁹ National Institute for Clinical Excellence. Clinical Guideline Colorectal Cancer: the diagnosis and management of colorectal cancer: Full Guideline; NICE; 2011

Gaixotasunaren historia naturalari dagokionez, kasuen % 70-80an hesteetako polipo batean (adenoma) sortzen da, hura gaiztotu eta gero (kartzinoma). Kalkuluen arabera, adenoma batek minbizi bihurtzeko behar duen batez besteko denbora 10 urtekoa da⁴⁰. Kasu gehienak (% 70) esporadikoak dira; hau da, ez dute familia-aurrekaririk.


⁴⁰Bonelli L. Epidemiology and screening: what's new? Colorectal Dis. 2015;17:10–4. Hemen eskuragarri: <http://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.1111/codi.12815/abstract>

1. irudia POLIPOTIK MINBIZI INBADITZAILERA ARTEKO BILAKAERA

Lesioen bilakaera kartzinoma infiltratzailera arte
% 70 polipo batean hasten da



2. irudia ADENOMA-KARTZINOMA BATEN SEKUENTZIA



Iturria: European Guidelines for Quality Assurance in Colorectal Cancer Screening and Diagnosis. Lehen edizioa, 2010.

Hasiera batean, halako lesioek ez dute sintomarik izaten edo sintoma gutxi dituzte. Sekuentzia eskematiko honetan ikus dezakegu nola egin dezakeen aurrera gaitzak, adenoma izatetik kartzinoma lokalizatu izatera arte (I. estadia), eta ondoren metastasia agertu arte (IV. estadia), 2. irudian.

Gaixotasunaren historia naturala ezagutzeak hura goiz hautemateko aukera ematen du.

Baheketa-programa batean kontuan hartu beharreko hurrengo faktorea da proba edo azterketa egokirik dagoen, eta, KOMaren kasuan, honako hauek jotzen dira proba eraginkortzat: kolonoskopia, sigmoidoskopia eta gorotzetan ezkutatutako odola -SOH- (European Guidelines, 2010⁴¹, gero hemen eguneratua: IARC Handbook ³⁴).

Aldakortasun handia dago emaitzetan, batez ere, ikerketen diseinuarengatik eta erabilitako test motarengatik. Adibidez, FIT (Faecal Immunochemical Test) testaren kasuan, marka komertzialak, mozketak-puntuak, gonbidapenen maiztasunak eta adinak nabarmen alda ditzakete emaitzak. Sigmoidoskopia, ezkerreko kolonera mugatzen denez, emaitza aldakorak ematen ditu adinaren eta sexuaren arabera. Kolonoskopiaren kasuan, ez da KOMaren ikerketari buruzko sentikortasun-azterketarik aurkitu, baina neurtu egin dira adenomak detektatzeari buruzkoak, praktika klinikoen 2018ko gidan adierazten den bezala.⁴²

Metodo eta teknologia berriak ebaluazio-prozesuan daude, eta oraindik ez dago datu sendorik horiek baheketarako gomendatzeko.

Argi dago: edozein motatakoa izanik ere, baheketa eraginkorra da (hura ez egitearekin alderatuta), baina beharrezkoa da kostuaren eta eraginkortasunaren arteko oreka kontuan hartzea, MISCAN-Colon, Sim-CRC, CRC-SPIN eta antzeko eredu matematikoen bidez aztertu izan den bezala.⁴³

Polipoek odola jariatzeko joera dutenez, gorozkietan odolik dagoen (SOH) jakiteko proba eraginkortzat eta kostu-eraginkortzat jo da, bai intzidentzia, bai hilkortasuna murrizteko, eta, gainera, arrazoizko onargarritasun- eta bideragarritasun-tasak daude hura ezartzeko. Denborak aurrera egin ahala, testek ere aurrera egin dute eta test immunokimiko kuantitatiboak (FIT) lesio aurreratuen detekzio-tasa handiagoa agertu dute; orobat, onarpen zabalagoa dute herritarren artean⁴⁴⁻⁴⁵. Merkatuan askotariko testak daude, eta, batzuetan, zaila da haien arteko konparazioa egitea; hala ere, estandar batzuk ezarri dira, eta, haiei esker, emaitzak alderatu daitezke, µg hemoglobina/g gorozki unitatearen bidez⁴⁶.

⁴¹ Segnan N, Patnick J, von Karsa L (eds). European Guidelines for Quality Assurance in Colorectal Cancer Screening and Diagnosis. 2010, lehen edizioa. Luxenburgoko: European Commission, Publications Office of the European Union. 2011. 387. or.

⁴² Cubiella J, Marzo M, Mascort-Roca JJ, Amador-Romero FJ, Bellas-Beceiro B, Coflent-Villaplana J et al. Guía de Práctica Clínica. Diagnóstico y prevención del cáncer colorrectal. 2018an eguneratua. Gastroenterol Hepatol. 2018;41(9):585---596. DOI 10.1016/j.gastrohep.2018.07.012

⁴³ Knudsen AB, Zauber AG, Rutter CM, Naber SK, Doria-Rose VP, Pabiniak C, et al. (2016). Estimation of benefits, burden, and harms of colorectal cancer screening strategies: modeling study for the US Preventive Services Task Force. JAMA, 2016;315 (23):2595–609.

⁴⁴ Van Rossum L, Van Rijn AF, Laheij R, Verbeek AL, Van Oijen MG, Fockens P. Randomized study comparing the test performance of a guaiac-based fecal occult blood test with an immunochemical fecal occult blood test for colorectal cancer screening in a screening population. Gastroenterology 2008;135: 82-90.

⁴⁵ Young GR, Allison J, Cole S, Fraser CG, Halloran SP et al. Advances in Fecal Occult Blood Tests: The FIT Revolution. Dig. Dis. Sci. DOI: 10.1007/s10620-014-3445-3

⁴⁶ Fraser CG, Allison J, Young GR, Halloran SP, Seaman H.A standard for Faecal Immunochemical Tests for Haemoglobin Evaluation Reporting (FITTER). Ann Clin Biochem. 2014; 51;2: 301–302

Europak *screening*-ari buruz eman duen gomendio berriaren arabera (2021)⁴⁷, baheketa egiteko hobe da SOHren test immunokimiko kuantitatiboa (FIT) erabiltzea, gorozkietan odolik dagoen jakiteko testa egitea baino, 50 eta 74 urte arteko kolon eta ondesteko minbizia bahetzeko, eta kolonoskopiarekin jarraipena egitea.

Vermeer et al-ek (2017)⁴⁸ metodo erabilienak (odolean ezkutututako odola -SOH- eta kolonoskopia) konparatuz egindako berrikuspen sistematikoak argi utzi zuen azterketa gutxi daudela KOMaren baheketaren ondorio kaltegarriak neurtzen dituztenak, eta odola eta zulaketa izan direla gehien aztertu direnak, bai kolonoskopian SOH emaitza positibo baten ondoren, bai kolonoskopian metodo primario gisa. Mundu-mailan, FIT bidezko SOH detekzioa da metodorik erabiliena, biztanleriak eta laborategiak erraz maneiatzen dutelako, % 5 inguruko positibo-tasa duelako eta KOMaren eta AAre detekzio-tasa handia eskaintzen duelako.

Minbiziaren aurkako Estrategiari jarraikiz (2006 eta 2009), Osasun Sistema Nazionalaren oinarritzko zerbitzu-zorroan sartu da populazio-baheketa egitea 50 eta 74 urte bitarteko emakume eta gizonei, bi urtean behin gorozkietan ezkutututako odolaren testa eta diagnostikoa egiaztatzeko kolonoskopia eginda⁴⁹.

Test immunokimikoarekin zenbakizko emaitza bat lortzen da, eta emaitza hori sentikortasunaren eta zehaztasunaren arteko mozketak-puntu onargarri batera egokitu daiteke. Horrela, detekzio-tasa onargarria lortzen da, kasuak egiaztatzeko egin behar diren kolonoskopien kopuruaren arabera. Hain zuzen, baheketa egiteko test hau erabiltzea eta estandarizatzea proposatzen dute mundu osoko adituek⁵⁰.

Euskadin, FIT immunologiko kuantitatiboa erabiltzea erabaki da, eta hauek dira eskura dauden metodo baliozkotuak: Sentinel® eta OC-Sensor® 2009-2010ean⁵¹. 2010eko bigarren seihilekotik aurrera, OC-Sensor® erabiltzen da, mozketak-puntua 20 µHb/g gorozki izanik, hau da, 100 ngHb/ml buffer-en balioki-dea.

Baheketa honen proba diagnostikoa eta “gold estandarra” kolonoskopia optiko osoa da (itsua ere ikus daiteke), sedazioarekin.

⁴⁷ Council recommendation on strengthening prevention through early detection: A new EU approach on cancer screening [Internet]. Hemen eskuragarri: https://health.ec.europa.eu/system/files/2022-09/com_2022-474_act_en.pdf

⁴⁸ Vermeer NC, Snijders HS, Holman FA, Liefers GJ, Bastiaannet E, van de Velde CJ, et al. Colorectal cancer screening: systematic review of screen-related morbidity and mortality. *Cancer Treat Rev*. 2017;54: 87-98. DOI:10.1016/j.ctrv.2017.02.002

⁴⁹ Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2014ko azaroaren 6koa, 269. zk.; urriaren 31ko SSI/2065/2014 Agindua, zeinaren bidez aldatu egin diren Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komunak zorrotza eta zorrotza eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren I., II. eta III. eranskinak. Hemen eskuragarri: <http://www.boe.es/boe/dias/2014/11/06/pdfs/BOE-A-2014-11444.pdf>

⁵⁰ Allison JE, Fraser CG, Halloran SP, Young GP. Population screening for colorectal cancer means getting FIT: the past, present, and future of colorectal cancer screening using the fecal immunochemical test for hemoglobin (FIT). *Gut and Liver* 2014. DOI: 10.5009/gnl.2014.8.2.117

⁵¹ Zubero MB, Arana-Arri, E, Pijoan JI, Portillo I, Idigoras I et cols. Population-based colorectal cancer screening: comparison of two fecal occult blood test. *Frontiers in Pharmacology* 2014; 4; 175; 1-8

Kolonoskopia horrek konnotazio bereziak ditu KOMa bahetzeko programan; izan ere, diagnostikoa egiaztatzeko ez ezik, lesio aurreneoplasikoak erauzteko ere balio du, eta, horri esker, murriztu egin daiteke kolon eta ondesteko minbiziaren intzidentzia eta hilkortasuna epe ertain-luzera.

Kontuan hartu beharreko hurrengo puntua, gidari dugun eskema honen arabera, baheketa-programaren alderdi ekonomikoa da; hain zuzen, programaren bideragarritasuna, efizientziaren mende dagoena. Hau da, programak oreka gorde behar du eraginkortasunaren eta osasun-sistemak bere gain hartzeko moduko kostua izatearen artean.

Diagnostiko goiztiarreko programa baten (baheketa) edota edonolako prebentzio-neurriren eraginkortasuna frogatzeko, hobekuntza nabarmena ikusi behar da proba egiten zaion biztanleriaren osasun-egoerari, proba egiten ez zaion biztanleenarekin alderatuta. KOMaren baheketaren kasuan, hainbat azterlanek uzten dute agerian programaren kostu-eraginkortasuna, ezer ez egitearen aldean⁵²⁻⁵³.

Euskadi partaide duen COLONPREV-SOH vs kolonoskopia azterlanak ondorioztatzen duenez, FIT taldeko subjektuek kolonoskopiako taldekoek baino gehiago parte hartzen dute, eta minbiziaren detekzio-tasa antzekoa da, nahiz eta adenomaren detekzio-tasa handiagoa den kolonoskopiako taldean. Azterlan horri esker, zentro ugaritan martxan jarri eta 10 urte baino gehiago igarotakoan jakingo dugu zein den estrategiarik egokiena gure populaziorako eta nazioarteko antzeko populazioetarako⁵⁴.

"Sigmoidoskopia eta ez baheketa" saiakuntza kliniko⁵⁵ 2010ean argitaratu zen, eta, antza denez, saiakuntza horrek nabarmen murrizten du hilkortasuna. Hala ere, badirudi haren egokitasuna eta inplementazioa konplexuak izatea gure gizartean, gure antolamendu sanitarioagatik eta profesionalen nahiz biztanleen onarpenagatik (National Health Service-n erizainek edota familia-medikuek egiten dituzte sigmoidoskopiak, eta ez dute lesio proximalen arazoa konpontzen).

Baheketa-proba bat ala beste aukeratuko da, besteak beste, profesionalak eta biztanleak zenbateraino onartzen duten edo baliabiderik dagoen (kostu-eraginkortasunaren azterketa).

⁵² Lansdorp-V ogelaar I, Knudsen AB, Brenner H. Cost-Effectiveness of Colorectal Cancer Screening. *Epidemiologic Reviews* 2011; 1: 88-100, doi:10.1093/epirev/mxr004.

⁵³ Tran B et al. Preliminary Analysis of the Cost-Effectiveness of the National Bowel Cancer Screening Program: Demonstrating the Potential Value of Comprehensive Real World Data. *Internal Medicine* 2012; 7: 794-800, doi:10.1111/j.1445-5994.2011.02585.x.

⁵⁴ Quintero E, Castells A, Bujanda L, Cubiella J, Salas D, Lanás A et al. Colonoscopy versus fecal immunochemical testing in colorectal-cancer screening. *N Engl J Med* 2012; 366: 697-706

⁵⁵ Atkin WS, Edwards R, Kralj-Hans I, Wooldrage K, Hart AR, Northover JMA, Parkin DM, Wardle J, Duff SW, Cuzick J, UK Flexible Sigmoidoscopy Trial investigators. Once-only flexible sigmoidoscopy screening in prevention of colorectal cancer: a multicentre randomised controlled trial. *The Lancet* 2010. 375; 8: 1624-1633.

Baheketa-programa bat abiarazteko faseetan, antolamendu-, kudeaketa- eta ebaluazio-lan jakin batzuk bete behar dira, eta kontuan hartu, biztanleengan eragin onuragarria izango dutela bermatzeko. Eskema honetan azaltzen dira lan nagusiak⁵⁶:

Joint Action CANCON egitasmoaren ondoriozko dokumentuan, baheketak abiarazteko eta gobernatzeko gomendioak ematen dira, baita baheketen ezarpena eta ebaluazioa alderdi guztietan kalitatekoak izateko gomendioak ere. Nabarmentzekoak dira minbiziaren eta hilkortasunaren populazio-erregistroak dauzkaten programen emaitzak elkarlotzeko gomendioa eta kalitate-estandarrei jarraitu eta kostu-eraginkortasunaren ebaluazioak egitekoa.


Minbizia oro har jorratzean eta baheketan, oso garrantzitsua da desberdinkeria sozialak neurtu eta gutxiagotzea, CANCON⁵⁷ proiektuaren dokumentuan adierazten den moduan (Europak minbiziaren aurka mar txan jarraitako politikei buruzkoa da dokumentu hori, eta Joint Action IPAAC egitasmoak ere aintzat hartu du, Europaren ildo estrategiko berrien oinarri izan diren gomendioak emateko orduan^{57, 58}).

⁵⁶ Albreht T, Kiasuwa R, Van den Bulcke (eds). EUROPEAN guide on quality improvement in comprehensive cancer control. Cancer Control Joint Action. National Institute of Public Health (Slovenia) and Scientific Institute of Public Health (Brussels), 2017. 164. or.

⁵⁷ Federici A, Nicoletti G, van den Bulcke M. Cancer Control Joint Action. Policy Papers. National Institute of Public Health (Slovenia) and Scientific Institute of Public Health (Brussels), 2017. 143. or.

⁵⁸ Antilla A, Singh D, Lipponen S, Lönnberg S, Bingham C, Tamminiemi K, Molina-Barceló A, Hernández-García M, Rossi PG, Zappa M et al. New openings of cancer screening in Europe. Work Package 5, task 5.2. Cancer Screening: conference report. Innovative Partnership for Action Against Cancer. September 2020. Hemen eskuragarri: <https://www.ipaac.eu/res/file/outputs/wp5/new-openings-cancer-screening-europe.pdf>.

3. irudia INPLEMENTAZIOAREN HAINBAT FASETAKO ANTOLAMENDU-, KUDEAKETA- ETA EBALUAZIO-LANEN ETA KALITATE-HOBEKUNTZAREN ADIBIDEAK MINBIZIA BAHETZEKO PROGRAMA BATEAN



Iturria: CANCON 2017

5. KOM-A BAHETZEKO 2023-2025EKO PROGRAMAREN HELBURUAK

2017tik aurrera, 2014ko lehenengo gonbidapenean 50-74 urteko biztanleen ia-ia % 100 estaltzeko helburua lortutakoan, hurrengo gonbidapenen estaldura planteatu zen, parte-hartzearen tasa handitze aldera, Osasun Planak⁷ finkatzen duen bezala, bai osasuna hobetu eta morbiditateak murrizteko helburuz, bai desgaitasunaren arabera doitutako bizitza-urte (DDBU) asko galtzea eragiten duten gaixotasunak eta desgaitasunak ekitate-, kalitate- eta eraginkortasun-irizpideekin jorratzeko helburuz. Zalantzarik gabe, segidako gonbidapenetan detekzio-tasak gutxitu eta egonkortzea espero da, antzeko beste programa batzuetan gertatzen den bezala⁵⁹⁻⁶⁰

5.1. Helburu nagusia

Gaiztotu aurreko lesioak eta lesio gaiztoak goiz detektatu eta tratatzea, kolon eta ondesteko minbiziaren intzidentzia eta minbizi horren ondoriozko hilkortasuna murrizteko.

5.2. Helburu espezifikoak

- Euskadiko biztanleen % 99 estaltzea, haien aseguramendua edozein dela ere.
- Desberdinkeria sozialak murrizten laguntzea, pertsona zaurgarri gehiago iritsi daitezen.
- Gizonen parte-hartzea handitzea adin-talde guztietan.
- Baheketa-probaren akatsak <% 1 murriztea.
- Baheketan positibo eman duten pertsona guztien jarraipena bermatzea, <% 5eko galera-tasarekin.
- Baheketaren ondorio kaltegarriak monitorizatzea eta minimizatzea (odoljarioa, zulaketa, arnas-depresioa eta heriotza).
 - Zulaketen intzidentzia $\leq 1: 1.000$ izatea kolonoskopia diagnostiko edo terapeutikoetan, eta $\leq 1: 500$ izatea polipektomia egin den kolonoskopietan
 - Polipektomia osteko odoljarioaren intzidentzia $\leq 1:100$ izatea polipektomia egin den kolonoskopietan
- Prestaketa desagokiaren ondorioz berriz emandako ziten tasa % 2ra murriztea segurtasuna hobetu eta kostuak gutxitzeko.
- Kasu positiboetan egiten diren kolonoskopiak monitorizatzea, itxarote-denborak murrizteko zerbitzu-erakundeekin koordinatuta: 30 egun baino gutxiago Lehen Mailako Arretako medikuarekin kontsulta izan ondoren.

⁵⁹ Zorzi M, Fedeli U, Schievano E, Bovo E, Guzzinati S, Baracco S, et al. Impact on colorectal cancer mortality of screening programmes based on the faecal immunochemical test. Gut. 2014. DOI: 10.1136/gutjnl-2014-307508

⁶⁰ Logan RFA, Patnick J, Nickerson C, Coleman L, Rutter MD, von Wagner C, et al. Outcomes of the Bowel Cancer Screening Programme (BCSP) in England after the first 1 million tests. Gut. 2012;61;10:1439–46

- Positibo faltsuen eta negatibo faltsuen tasak monitorizatzea, programaren eraginkortasuna eta efizientzia hobetuko dituzten neurriak ezartzeko.
- Desberdinkeriak gutxiagotzeko esku-hartzeak diseinatzea eta haien inpaktua monitorizatzea
- Komunikazioa maila profesional, komunitario eta herritar guztietan hobetzea, kanpainen, webaren eta sare sozialen bidez.

6. JARDUERA-ESPARRUA

Jarduera-esparruari heltzen badiogu, Baheketa Programaren helburua da Euskadin bizi diren xede-populazioko biztanle guztien estaldura sistematiko eta periodikoa lortzea.

Ekitatea bermatzeko, Osakidetza bermatzaile dutenei nahiz beste bermatzailearen bat dutenei (mutualitateak eta bestelako aseguramenduak) bidaliko zaie gonbidapena.

Programara nekez iristen diren kolektiboak kontuan hartuko dira (instituzionalizatutako pertsonak, talde etnikoak, komunitate erlijiosoak eta maila sozioekonomiko baxuko pertsonak).

6.1. Xede-populazioa

Baheketa-programa honen xede-populazioa Euskadin bizi diren eta KOM izateko arrisku ertaina duten 50 eta 74urte arteko gizon-emakumeak dira. 2023ko urtarrilaren 1ean, 778.359 pertsona ziren gutxi-gorabehera (Eustat).

7. BAHETZEKO PROZEDURA OROKORRA

KOMa bahetzeko prozedura orokorrean, jarduketa hauek sartzen dira:

7.1. Xede-populazioa hautatu eta araztea (I. eranskina)

Xede-populazioa: Gonbidapenaren urtean 50-74 urte dituzten gizon-emakumeak. OSABIDE datu-basetik hautatuko dira Osakidetza bermatzaile dutenak, eta zerrendetatik eta egin dituzten eskaeretatik OTIrik EZ dutenak.

Populazio hautagarria: Programan parte hartzera gonbida daitezkeen xede-populazioko gizon-emakumeak, gonbidapenaren unean ez dagoelako haiek baztertzeko irizpiderik.

Populazio gonbidagarria: Informazioa eta gonbidapena bidaltzeko lokaliza daitekeen populazio hautagarria.

Baliozko gonbidapena: Helbide ezezagunagatik itzuli ez diren gonbidapenak.

7.2. Gonbidapena eta FIT bidaltzea

Gutun bat bidaliko da populazio gonbidagarriko pertsona bakoitzaren helbidera, programari buruzko informazioarekin, jarraibideekin eta gorozki-lagina biltzeko materialarekin. Horiek osasun-zentroan nola entregatu ere azalduko da gutunean (II. eranskina). Beste aseguramenduren bat duten pertsonsei (OTIrik EZ) aurrez zigilatutako gutun bat bidaliko zaie etxera, lagina posta bidez igor dezaten erreferentziako ospitalera (XIV. eranskina).

7.3. FIT entregatu eta prozesatzea

Parte-hartzailea: populazio gonbidagarriko edonor, FIT kita osasun-zentroan entregatu duena prozesa dezaten, edota, OTIrik EZ dutenen kasuan, kita postaz bidali duena prozesa dezaten. Testaren emaitza baliozkoa (positiboa/negatiboa) bada soilik hartuko da parte-hartzailatzat.

Lagina osasun-zentro bakoitzean bilduko da, eta, laborategiko papera zer egunetan sortu den, horixe izango da programako sarrera-eguna (III. eranskina). OTIrik EZ dutenen kasuan, lagina analizatu zen data hartuko da kontuan.

Lagina entregatu ezean, gogorazpen-gutun bat bidaliko da, parte hartu ez dutenei kita bidali eta bost astera. Kita uzten ez duen pertsona **ez da parte-hartzailatzat** hartuko, eta gauza bera gertatuko da gonbidapen-prozesuan lehenago nahiz ondoren parte hartzeari uko egiten diotenekin.

Laginak esleitutako erreferentziako laborategian aztertuko dira.

7.4. FIT (Faecal Immunochemical test) baheketa-proben emaitzak kudeatzea

Emaitza guztiak gutun edo SMS bidez jakinaraziko zaizkie parte-hartzaileei. Gutuna edo mezua PKZk igorriko du, eta familia-medikuak OGPn ikusiko ditu emaitzak (IV. eranskina). OTIrik EZ dutenen kasuan, PKZk ikusiko ditu emaitzak, eta parte-hartzaileei jakinaraziko dizkie, gutun edo SMS bidez.

Akatsa egon den kasuetan, beste gutun bat bidaliko da. kita barne dela. Akats horiek aurreanalitikoak (lagina galdu da, parte-hartzaileak edota profesionalak erabilera desegokia hauteman du) nahiz analitikoak (laborategian hautemandakoak) izan daitezke.

Emaitza negatiboa bada, SMSean/gutunean bi urteren buruan berriz ere programan parte hartzeko gonbidapena egingo zaie parte-hartzaileei, baldin eta ordurako 70 urte bete ez badituzte. Adin hori gainditu badute, prebentzio-jarduketak amaituko direla jakinaraziko zaie. Gonbidapena atzeratzen bada, epea zabalduko da, aurretiko gonbidapenaren dataren arabera. (XI. eranskina).

Emaitza positiboa bada, parte-hartzaileari gutun bidez adieraziko zaio Lehen Mailako Arretako medikuekin harremanetan jartzea komeni zaiola eta hark diagnostikoa berresteko kolonoskopia aginduko diola.

Parte-hartzaile bat emaitza positiboa jaso eta 30 egunera osasun-zentrora joaten ez bada, PKZk jarraipena antolatuko du, eta kolonoskopia egin ez duten kasu guztien berri emango die ESlei, Lehen Mailako Arretako eta Kudeaketa Sanitarioko Unitateko medikuek elkarrekin kudea ditzaten. Ezin bada parte-hartzailea aurkitu, PKZk gutun ziurtatua bidaliko dio, jaso izanaren agiriarekin. Kolonoskopia sistema pribatuan egin badu, aurrez zigilatutako gutun bat bidaliko zaio, kolonoskopiaren eta anatomia patologikoaren emaitza bidal diezaion PKZri.

Gonbidapen-urtearen amaieran, FIT testean positibo eman ondoren kolonoskopia egin ez duten kasu guztiak lokalizatuko ditu PKZk, populazio motaren arabera tipifikatzeko. Galeratzat hartuko dira ez bada lortu kolonoskopia egitea edo diagnostikoa osatzea (prestaketa txarra, osatugabea, erauzketa partziala, etab.) edo ezin izan bada haiekin harremanetan jarri. PKZk jarraipena egingo die kasu horiei guztiei, eta berrikusi egingo ditu programako hurrengo gonbidapena bidali aurretik.

7.5. Diagnostikoa berrestea

FIT emaitza positiboa izan duten pertsona guztiei (≥ 20 $\mu\text{Hb/g}$ gorozki edota ≥ 100 ngHb/100 ml) kolonoskopia egitea proposatuko zaie kontraindikaziorik ezean, familia-medikuaren bidez. Hark zeregin hauek beteko ditu: historia klinikoa egitea, kolonoskopia egin aurreko probak (ESlan eta Osakidetzaaren sarean protokoloan jasota daudenak) zein diren adieraztea, baimen informatua biltzea eta erizainarengana joateko zita ematea, informazio gehiago jaso eta kolonoskopia egiteko prestaketa proposatzeko. (V. eranskina). Parte-hartzaileak baztertua izateko arrazoiren bat betetzen badu, LMAUko mediku eta erizainez osatutako taldeak PKZri jakinaraziko dio, programaren helbide elektronikoaren bitartez (prevencionccr@osakidetza.eus)

7.6 Kolonoskopia egitea

Kolonoskopiak LMAU bakoitzeko ESI erreferenteetako Endoskopia Unitateetan egiten dira. AEGren (2018) eta ESGEren (2020) PKGko gomendioei jarraikiz egingo dira.

Prozedura amaitutakoan emango zaizkio kolonoskopiaren emaitzak pertsonari, eta familia-medikuarengana joan dadila aginduko zaio, hark informazioa eman diezaion, eta jarraipena egitea gomendatu.

Erauzitako lesioak Anatomia Patologikoko laborategietan aztertuko dira.


Endoskopia Unitate bakoitzak emaitzak kudeatzeko ibilbidea ezarriko du (Anatomia Patologikoko eta Endoskopiako taldeen txostena), protokoloaren arabera jarraipen-gomendioak emateko (eranskina)

7.6. Kolonoskopiaren emaitzak kudeatzea

Emaitza negatiboa bada (normala; horren barruan sartzen dira: aurkikuntzarik gabekoak, hemorroideak, dibertikuluak, lipomak eta melanosia eta polipo hiperplasiko ez-zerradunak), hala jakinaraziko du Endoskopia Unitateko espezialistak, eta PKZk gutun bat bidaliko dio parte-hartzaileari, 10 urteren buruan baheketan berriz parte har dezan, baldin eta ez baditu ordurako 70 urteak bete. Pertsona horren prozesu diagnostikoa kalitateko kolonoskopia bidez osatu bada soilik bidaliko da gutuna (hau da, behar bezalako presaketaketa zuen, osorik egin da eta aurkitutako lesioak analizatu dira edo ez da lesiorik aurkitu). (XI. eranskinetako gutuna).

Emaitza positiboak kudeatzeko, Kolon eta Ondesteko Minbizia Diagnostikatu eta Prebenitzeko PKGari (2018)³² jarraituko zaio, eta Anatomia Patologikoko eta Endoskopiako taldeek ados jartzeko egiten dituzten bileretan eguneratuko da dokumentu hori (XVI. eta XVII. eranskinak).

KOMa bahetzeko prozedura orokorreko jarduketa guztiak 4. irudian laburtu dira.

4. irudia.- BAHEKETAREN JARDUKETA-FLUXUA


UAPs: Unidades de Atención Primaria; CCR: Cáncer Colorrectal; FIT: prueba inmunoquímica fecal; AMR: adenomas medio riesgo; AAR: adenomas alto riesgo.

8. INFORMAZIO-, MONITORIZAZIO- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

PKZk garatu du informazio-sistema, honako hauekin lankidetzan: Zuzendaritza Nagusiko Informatika Zerbitzuarekin eta Osabide-APko, OsabideGlobal eta OGPko, Osabide Integrako, GestLab-eko, Minbiziaren Ospitaleko Erregistroko eta Minbiziaren Populazio Erregistroko arduradunekin. Datu-base klinikoekiko el-karreragingarritasunari esker, errazagoa da kasu guztien trazabilitatea eta jarraipena egitea, eta Osabiden geratzen da erregistratuta jarduera guztia. Aplikazioan, xede-populazioko pertsona bakoitzak fitxa indibidualizatua du, eta, bertan, datu hauek daude erregistratuta: gonbidapenak, bazterketak, parte-hartzea / parte-hartzerik ez, FITaren emaitza, kolonoskopiaren emaitzak eta kalitatea (hedadura, prestaketa, konplikazioak...), lesioen kokapena, tamaina eta histologia eta minbizi inbaditzaileen TNMa, estadioa eta tratamendua, bai programan hautemandakoenak, bai jarraipen edo bitartekoenak. Gutun/SMS guztiak eta gonbidapenetan jasotako aldagaiak. Baita pertsona partaide den ikerketa-lanak eta lanon emaitzak ere.

Ebaluazioaren azken xedea Baheketa Programaren eraginkortasuna ezagutzea izango da. Hala ere, hori ezin da berehala jakin, epe ertainera azter daitezkeen datu-serieetan ikusten delako intzidentziaren eta hilkortasunaren beherakada. Hasieratik ebaluazio jarraitua egiten da (gonbidapenaren, zentroen, urteen, adin-taldeen eta sexuaren arabera); izan ere, Osakidetzaren aplikazioak (KOMBP) aukera ematen du egi-aztapen-zerrendak eta erregistratu eta berehalako adierazleak lortzeko. Horrez gain, sistemaren bidez, datuon ustiapen masiboa egin daiteke, azterketa estatistiko xehe-xehea egiteko.

Fitxategi hori deklaratuta dago⁶¹, datuak babesteko indarreko araudiak betetzeko (Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko Lege Orokorraren 31.2 artikulua⁶² eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 13. artikulua⁶³), bat etorrita Osakidetzaren segurtasun-araudiarekin.

Lehen Mailako Arretako Unitateek, erakunde sanitario integratuek (ESI) eta Baheketa Programen Estatu Sareak aldian behingo ebaluazioak egiten dituzte, Europako Gidan (2010) eta Minbizia Bahetzeko Programen Sarearen gidalerroetan oinarrituta⁶⁴.

VII. eta VIII. eranskinetan jaso dira aldagaiak eta adierazle nagusiak.

⁶¹ https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_pro_dat_datatable/es_def/adjuntos/avisos/ci_PRO-GRAMA_CANCER_DE_COLON.pdf

⁶² 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

⁶³ 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, zeinak 95/46/EE Zuzentzara indargabetzen baitu (datuak babesteko erregelamendu orokorra).

⁶⁴ Minbizia Bahetzeko Programen Sarea. Hemen eskuragarri: www.cribadocancer.com

9. BAHEKETA-PROGRAMAREN KUDEAKETA-IBILBIDEA

Programa honek funtziona dezan, asistentzia-maila guztiek hartu behar dute parte, diziplina anitzetatik. Bakoitzak berariazko zereginak ditu helburu hori lortzeko, hemen zehaztu moduan:

9.1. Erantzukizun-mailak

Programaren Koordinazio Zentroa (PKZ)

- Programaren plangintza orokorra egitea eta programa antolatu eta ezartzea, Zuzendaritza Nagusiak eta Osasun Sailak onartutako helburuen arabera.
- Osasun-langileak koordinatzea, programa garatu eta gauzatzeko.
- Programaren protokoloak eta dokumentuak egin eta eguneratzea, baita prestakuntza, informazio eta komunikaziorako materialak ere.
- Gonbidatzeko eta emaitzen berri emateko gutunak eta SMSak bidaltzea.
- FITerako laginak hartzeko jarraibideak ematea.
- KOMari buruzko eskuliburu eta kartelak egitea.
- Webguneko edukiak sortzea.
- Bideoak eta ikus-entzunezko materialak egitea.
- ESletan eta LMAUetan programa eta emaitzak aurkeztea, gonbidapenak bidali aurretik, protokoloak ebidentziaren arabera eguneratuta.
- Gonbidapenak planifikatu eta egokitzea, zerbitzu-erakundeekin eta Ospitaleko Arreta Koordinatzeko Zuzendariordetzarekin koordinaturik, kolonoskopien kudeaketan ez dadin atzerapenik gertatu.
- Datu-baseak eguneratuta edukitzea eta sartzekoak eta bazter uztekoak kudeatzea, Zuzendaritza Nagusiaren Informatika Zerbitzuarekin koordinaturik egin beharreko gonbidapenen arabera.
- Gonbidatzeko prozesua, parte-hartzea, positibotasuna, kolonoskopiaren kalitatea eta kasu positibo guztien jarraipen eta erregistroa monitorizatu, kudeatu eta ebaluatzea.
- Jarraipenerako datuak eta emaitzak ematea, Osasun Plana, Onkologia Plana, Plan Estrategikoa, Kontratu Programa, urteko memoriak eta ESlek eta LMAUek programa kudeatu eta hobetzeko egiten dituzten eskaerak ebaluatzeko.
- Ikerketa-lanak martxan jarri eta horietan parte hartzea, bai eta programaren emaitzekin eta inpakturekin lotutako argitalpenak egitea ere.
- Kasu positiboen jarraipena egitea
- Informazio-sistema garatu eta hobetzea, prozesu osoaren eta prozeduren kalitatea bermatzeko.
- Programa monitorizatu eta ebaluatzea.
- Prozesuak hobetzeko protokoloak prestatzea, profesional, analista, hematologo, anestesista, endoskopia-egile, patologo, mediku eta Lehen Mailako Arretako erizainekin, besteak beste.

- Kontrako ondorioei jarraipena egitea: kolonoskopiaren konplikazioak, bitarteko minbizien positibo faltsuak (negatibo faltsuak).

Lehen Mailako Arretako Unitateak

- PKZrekin elkarlanean aritzea, parte hartzeko gonbidapena jasoko duen xede-populazioa sentsibilizatu, informatu eta aholkatzeko.
- FIT laginak hartzea eta erreferentziako laborategira bidaltzea, prozesuaren segurtasun- eta trazarabilitate-protokoloei jarraikiz. Osasun-zentroetatik akatsei buruzko informazioa bidaltzea Koordina-zio Zentroari posta elektronikoko bidez (egoera txarrean dauden kitak, okerreko identifikazioa, etab.).
- Kontsultan arreta espezifikoa ematea FIT emaitza positiboa izan dutenei.
 - Positiboak: FIT emaitza positiboa izateak zer dakarren jakinaraztea eta kolonoskopia emaitza baieztatzeko proba diagnostiko gisa erabiltzeko buruzko informazioa ematea. Baimen informa-tua entregatu eta sinatzea. Kolonoskopiaren aurretik egin beharreko probak egitea, ASaren arrisku-irizpideen eta parte-hartzailearen arrisku espezifikoen arabera, bat etorrita ESlaren eta Osakidetzako sarearen protokoloekin.
- Kolonoskopiako zita kudeatzea.
- Kolonoskopia egin aurreko prestaketa-lanak egitea.
 - Erreferentziako erizainak kolonoskopiarako prestatzeko informazioa eta prestakina ematea, proba egin baino 7-10 egun lehenago.
 - Aholkuak, prestaketari eta dietari buruz informatzeko orriak eta informazio-bideoak ematea.
 -
 - Kolonoskopia egin eta gerorako informazioa, gomendioak eta jarraitu beharreko aholkuak ema-tea.
- Probaren emaitzen jarraipena egitea, Endoskopia Unitateekin koordinatuta, baita indarreko proto-koloena ere, eta pertsonei emaitzen eta egin beharreko jarraipenaren berri ematea.

Arreta Espezializatua

Biokimika Zerbitzua:

- Laginak hartzeko sistema garatzea.
- FIT baheketa-probaren emaitzak analizatu eta baliozkotzea.
- Emaitzak Osabiden iraultzea (kuantitaboak eta kualitatiboak)
- PKZri hauteman diren intzidentzien eta akatsen berri ematea posta elektronikoko bidez.
- Kanpoko eta barneko kalitate-kontrolak egitea.

Digestio-aparatuko Zerbitzua:

- Diagnostikoa berresteko kolonoskopien zitak kudeatzea.
- Baimen informatua jaso eta artxibatzea.
- Kolonoskopiak kalitate-irizpideen arabera egitea.
- Diagnostikoa berretsi eta tratatzea (polipoak erauztea).
- Beste proba batzuk edota hedadura-azterketak egin behar zaizkien kasuen jarraipena egitea.
- KOMa eta lesio aurreratuak edukitzeko arrisku handia dutenentzako kontsultetara deribatzea, ESIko protokoloen arabera.
- Prozesuaren jarraipena egitea.
- LMAko medikuari jarraipen-gomendioa egitea, Anatomia Patologikoko emaitza ebaluatu ondoren.
- Jarraipeneko kolonoskopiak kudeatzea, aurkitutako lesioaren eta giden eta pazientearentzat eza-rritako pautaren arabera.

Anatomia Patologikoko Zerbitzua:

- Laginak hartzea eta aztertzea.
- Egindako endoskopiari buruzko txosten makroskopiko eta mikroskopikoa egitea.
- Endoskopia Unitateekin eta Minbiziaren Batzordeekin koordinatzea jarraipenak eta tratamendu espezifikokoak egiteko.
- Analisi espezifikokoak egitea, protokoloen arabera.

9.2. Sentsibilizazioa eta prestakuntza

Programaren txanda bakoitza hasi aurretik, berariazko sentsibilizazio-kanpaina bat egingo da, osasun-sistemaren berezko baliabideak, tokiko hedabideak eta Internet erabiliz. PKZk eta dagozkien ESlek/LMAUek koordinatuko dute kanpaina osoa. (IX. eranskina)

Lehen Mailako Arretako Unitateetan eta ESletan, prestakuntza emango zaie parte hartzen duten arlo guztietako langile guztiei (medikuntza, erizaintza, administrazioa).

9.3. Plangintza eta kudeaketa

PKZk urteroko plangintza egingo du, eta Zuzendaritza Nagusiak eta Osasun Sailak onartuko dute.

Plangintza zerbitzu-erakundeetako arduradunekin eztabaidatu eta adostuko da, eta zerbitzu-erakundeek hitzartuta dauden urteroko helburuak betetzeko konpromisoa hartuko dute. Kontuan izan behar da kolonoskopien eskaintza programan sortzen diren positiboen eskarira egokitu behar dela. Gonbidapenen arteko denbora-tartea 36 hilabetetik gorakoa izango ez dela bermatu behar da, bitarteko minbiziak saihesteko/minimizatzeko.

9.4. Monitorizazioa eta ebaluazioa

PKZk behar besteko euskarria izango du prozesuaren kalitatearen desbideratzeak planifikatu, antolatu, monitorizatu, ebaluatu eta zuzentzeko.

9.5. Hobekuntzak eta berrikuntza

PKZk koordinatzen dituen lantaldeak eta ikerkuntza-taldeak kudeatuko dira, programaren emaitzak hobetzeko eta haren gaineko eraginkortasun eta kontrol handiagoa lortzeko behar diren berrikuntzak ezartzeko. Gaur egun, anatomia patologikoko, endoskopia digestiboko, laborategiko eta Lehen Mailako Arretako lantaldea dago martxan.

Profesionalek eta biztanleriak egindako proposamenak kontuan hartuko eta baliozkotuko dira.

Informazio-sistema baliozkotzat eta ontzat eman diren hobekuntzetara egokituko da, prozesuen trazabilitatea eta emaitzen ebaluazioa bermatzeko.

10. BIBLIOGRAFIA

1. Sung H, Ferlay J, Siegel RL, Laversanne M, Soerjomataram I, Jemal A, Bray F. Global Cancer Statistics 2020: GLOBOCAN Estimates of Incidence and Mortality Worldwide for 36 Cancers in 185 Countries. *CA Cancer J Clin.* 2021 May;71(3):209-249
2. Allemani C, Matsuda T, DiCarlo V, Harewood R, Matz M, Niksic M, et al. Global surveillance of trends in cancer survival 2000-2014 (CONCORD-3): analysis of individual records for 317 513 025 patients diagnosed with one of 18 cancers from 322 population-based registries in 71 countries (CONCORD-2). *Lancet.* 2018; 391(10125):1023–75
3. European cancer information system. ECIS. Hemen eskuragarri: ecis.jrc.ec.europa.eu¹
4. Estimaciones de la Incidencia del Cáncer en España, 2023. Espainiako Minbizi Erregistroen Sarea (REDE-CAN), 2023.
5. ELGA (2023), Perfiles nacionales de cáncer: España 2023, EU Country Cancer Profiles, OECD Publishing, Paris.
6. ELGA (2023), Perfiles nacionales de cáncer: España 2023, EU Country Cancer Profiles, OECD Publishing, Paris.
7. Mendizabal Gallastegui N., Portillo Villares, I., Bacigalupe De La Hera, A. Desigualdades sociales en la cobertura y participación en el Programa de Cribado Cáncer Colorrectal de Euskadi. 2021.¹
8. Aginagalde-Llorente, AH. Desigualdades sociales en el cribado de cáncer colorrectal. 2022¹
9. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila. Euskadiko Osasun Plana 2030. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco 2023. Vitoria-Gasteiz. 138 or.. Hemen eskuragarri: https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop¹.
10. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila. Euskadiko Onkologia Plana 2018-2023 Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco 2018. Vitoria-Gasteiz. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan_oncologico_2018_2023/eu_def/adjuntos/euskadi-onkologia-plana-2018-2023.pdf¹
11. Bakker CK, Jonkers D, Smits K, Mesters I, Masclee A, Stockbrügger R. Participation in colorectal cancer screening trials after first-time invitation: a systematic review. *Endoscopy* 2011; 43:1059-1086.
12. Clarke N, Sharp L, Osborne A, Kearney PM. Comparison of Uptake of Colorectal Cancer Screening Based on Fecal Immunochemical Testing (FIT) in Males and Females: A Systematic Review and Meta-analysis. *Cancer Epidemiol Biomarkers Prev.* 2015;24;1:39–47
13. Lo SH, Halloran S, Snowball J, Seaman H, Wardle J, von Wagner C. Colorectal cancer screening uptake over three biennial invitation rounds in the English bowel cancer screening programme. *Gut.* 2015; 64;2:282–91.
14. Kapidzic A, Grobbee EJ, Hol L, van Roon AH, van Vuuren AJ, Spijker W, et al. Attendance and Yield Over Three Rounds of Population-Based Fecal Immunochemical Test Screening. *The American Journal of Gastroenterology.* 2014;109;8:1257–64
15. Portillo I, Idigoras I, Ojembarrena E, Arana E, Zubero MB, Pijoán JI et al. Principales resultados del programa de cribado de cáncer colorrectal en el País Vasco. *Gac Sanit.* 2013 ; 27 ; 4: 358–361
16. Clarke N, Sharp L, Osborne A, et al. Comparison of uptake of colorectal cancer screening based on fecal immunochemical testing (FIT) in males and females: a systematic review and meta-analysis. *Cancer Epidemiol Biomarkers Prev* 2015;24:39-47.
17. Hurtado JL, Bacigalupe A, Calvo M, Esnaola S, Mendizabal N, Portillo I, Idigoras I, Millán E, Arana-Arri E. Social inequalities in a population based colorectal cancer screening programme in the Basque Country. *BMC Public Health* 2015 DOI: 10.1186/s12889-015-2370-5.
18. Christian von Wagner et al. Inequalities in Participation in an Organized National Colorectal Cancer Screening Programme: Results from the First 2.6 Million Invitations in England. *International Journal of Epidemiology.* 2011: 40; 3: 712-18, doi:10.1093/ije/dyr008

19. Unanue-Arza, S.; Idigoras-Rubio, I.; Fernández-Landa, M.J.; Bilbao-Iturribarria, I.; Bujanda, L.; Portillo, I. Analysis of Post-Colonoscopy Colorectal Cancer and Its Subtypes in a Screening Programme. *Cancers* 2021, 13, 5105.
20. Solís-Ibinagaitia M, Unanue-Arza S, Díaz-Seoane M, Martínez-Indart L, Lebeña-Maluf A, Idigoras I, Bilbao I and Portillo I (2020) Factors Related to Non-participation in the Basque Country Colorectal Cancer Screening Programme. *Front. Public Health* 8:604385. doi: 10.3389/fpubh.2020.604385
21. Inequalities in participation in colorectal cancer screening programmes: a systematic review. Isabel Mosquera, Nere Mendizabal, Unai Martín, Amaia Bacigalupe, Elena Aldasoro, Isabel Portillo, from the Desberdinak Group. *European Journal of Public Health*, Volume 30, Issue 3, June 2020, Pages 558–567, <https://doi.org/10.1093/eurpub/ckz236>
22. Kapidzic A, van de Meulen P, van Roon AH, Looman CW, Lansdorp- Vogelaar I, van Ballegooijen M, et al: Gender differences in fecal immunochemical test performance for early detection of colorectal neoplasia. *Clin Gastroenterol Hepatol* 2015; pii: S1542-3565;15;00162-7
23. Portillo I, Arana-Arri E, Idigoras I, Espinás JA, Pérez-Riquelme F, de la Vega M, González A, Oceja E, Vanaclocha M, Ibañez J, Salas D eta Cribea taldea. Proyecto CRIBEA: Lesiones detectadas en seis Programas Poblacionales de Cribado de Cáncer Colorrectal en España. *Rev Esp Salud Pública* 2017; 91; 20 Febrero e1-e10.
24. EAEko Osasun Inkesta.. 2018 (EAEOI 2018). 6. kapitulu: Osasun- eta zaintza-zerbitzuak. Minbizia- baheketak- programak
25. Unanue-Arza S, Arana-Arri E, Portillo I, Arostegui I. Implicación de los profesionales de atención primaria en el programa de detección precoz de cáncer colorrectal del País Vasco. *Rev Esp Salud Pública*. 2021; 95. liburukia: urtarilak 26 e1-11.
26. Portillo I, Idigoras I, Ojembarrena E, Arana E et al. Lesiones detectadas en el programa de cribado de cáncer colorrectal en el País Vasco: primera ronda 2009-2011. *Gastroenterol Hepatol*. 2013 ; 36 ; 5: 301–308
27. Arana-Arri E, Imaz-Ayo N, MJ, Idigoras I, Bilbao I, Bujanda L, et al. Screening colonoscopy and risk of adverse events among individuals undergoing fecal immunochemical testing in a population-based program: A nested case-control study. *United European Gastroenterol J*. 2018 Jun; 6(5): 755–764. doi: 10.1177/2050640618756105.
28. Mercedes Vanaclocha-Espia, Josefa Ibáñeza B, Ana Molina-Barceló, María José Valverde-Roig, Elena Pérezb, Andreu Nolasco, Mariola de la Vegad, Isabel Diez de la Lastra-Boschd, María Elena Ocejae, Josep Alfons Espinásf, g, Rebeca Fontf, g, Francisco Pérez-Riquelmeh, i, Eunat Arana-Arrij, Isabel Portillo, Dolores Salasa, b, *, CRIBEA Group1. Risk factors for severe complications of colonoscopy in screening programs. <https://doi.org/10.1016/j.ypmed.2018.11.010>.
29. Cristina Alvarez-Urturi, Montserrat Andreu, Cristina Hernandez, Francisco Perez-Riquelme, Fernando Carballo, Akiko Ono et al. Impact of age and gender-specific cut-off values for the fecal immunochemical test for hemoglobin in colorectal cancer screening. *Digestive and Liver Disease* 2016. DOI.org/10.1016/j.dld.2016.02.001 Arana-Arri E, Idigoras I, Uranga B, Perez R, Irurzun A, Gutierrez-Ibarluzea I, Fraser C, Portillo I, EUSKOLON group. Population-based colorectal cancer screening programmes using a faecal immunochemical test: should faecal hemoglobin cut-offs differ by age and sex? *BMC Cancer* DOI 10.1186/S12885-017-3555-3
30. Portillo I, Arana-Arri E, Idigoras I, Bilbao I, Martínez-Indart L, Bujanda L, Gutierrez-Ibarluzea I. Colorectal and interval cancers of the colorectal cancer screening program in the Basque Country (Spain). *World Gastroenterol* 2017; 23; 15: 2731-2742.
31. Idigoras I, Arrospe A, Portillo I, Arana-Arri E, Martínez-Indart L, Mar J, de Koning HJ, Lastra R, Soto-Gordoa M, van der Meulen M, Lansdorp-Vogelaar I. Evaluation of the Colorectal Cancer Screening Programme in the Basque Country and the effectiveness based on the MISCAN-colon model. *BMC Public Health* 2017. DOI 10.1186/S12889-017-4639-3.
32. Arrospe A, Idigoras I, Mar J, de Koning H, van der Meulen M, Soto-Gordoa M, Martinez-Llorente JM, Portillo I, Arana-Arri E, Ibarrondo O, Lansdorp-Vogelaar I. Cost-effectiveness and budget impact analyses of a colorectal cancer screening programme in a high adenoma prevalence scenario using MISCAN-Colon microsimulation model. *BMC Cancer*. 2018 Apr 25;18(1):464. doi: 10.1186/s12885-018-4362-1. PMID: 29695234; PMCID: PMC5918894.¹

33. Colorectal cancer screening. IARC Handbook Cancer Prevention. 17. bol. 2019:1–300. Hemen eskuragarri: <http://publications.iarc.fr/573>. Wilson JMG, Jungner G: Principles and practice of screening for disease. Public Health Papers. Osasunaren Mundu Elkarte, 1968. Osasun eta Kontsumo Ministerioko lantaldea. Documento Marco sobre cribado poblacional. 2011 Hemen eskuragarri: https://www.msssi.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/docs/Cribado_poblacional.pdf
34. Mark J. Dobrow, Victoria Hagens, Roger Chafe, Terrence Sullivan and Linda Rabeneck Consolidated principles for screening based on a systematic review and consensus process.. CMAJ April 09, 2018 190 (14) E422-E429; DOI: <https://doi.org/10.1503/cmaj.171154>
35. Lönnberg S, Sëkerija M, Malila N, Sarkeala T, Leja M, Májek O et al Cancer screening: policy recommendations on governance, organization and evaluation of cancer screening. European guide on quality improvement in comprehensive cancer control. 2017. Albrecht T, Kiasuwa R, Van den Bulcke M (editoreak). Ljubljana: National Institute of Public Health; Brusela: Scientific Institute of Public Health. 4. kapitulu: 39-76. Hemen eskuragarri: https://cancercontrol.eu/archived/uploads/images/Guide/pdf/CanCon_Guide_FINAL_Web.pdf
36. National Institute for Clinical Excellence. Clinical Guideline Colorectal Cancer: the diagnosis and management of colorectal cancer: Full Guideline; NICE; 2011
37. Bonelli L. Epidemiology and screening: what's new? Colorectal Dis. 2015;17:10–4. Hemen eskuragarri: <http://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.1111/codi.12815/abstract>
38. Segnan N, Patnick J, von Karsa L (eds). European Guidelines for Quality Assurance in Colorectal Cancer Screening and Diagnosis. 2010, lehen edizioa. Luxenburgoko: European Commission, Publications Office of the European Union. 2011. 387. or.
39. Cubiella J, Marzo M, Mascort-Roca JJ, Amador-Romero FJ, Bellas-Beceiro B, Coflent-Villaplana J et al. Guía de Práctica Clínica. Diagnóstico y prevención del cáncer colorrectal. 2018an eguneratua. Gastroenterol Hepatol. 2018;41(9):585–596. DOI 10.1016/j.gastrohep.2018.07.012
40. Knudsen AB, Zauber AG, Rutter CM, Naber SK, Doria-Rose VP, Pabiniak C, et al. (2016). Estimation of benefits, burden, and harms of colorectal cancer screening strategies: modeling study for the US Preventive Services Task Force. JAMA, 2016;315 (23):2595–609.
41. Van Rossum L, Van Rijn AF, Laheij R, Verbeek AL, Van Oijen MG, Fockens P. Randomized study comparing the test performance of a guaiac-based fecal occult blood test with an immunochemical fecal occult blood test for colorectal cancer screening in a screening population. Gastroenterology 2008;135: 82-90.
42. Young GR, Allison J, Cole S, Fraser CG, Halloran SP et al. Advances in Fecal Occult Blood Tests: The FIT Revolution. Dig. Dis. Sci. DOI: 10.1007/s10620-014-3445-3
43. Fraser CG, Allison J, Young GR, Halloran SP, Seaman H.A standard for Faecal Immunochemical Tests for Haemoglobin Evaluation Reporting (FITTER). Ann Clin Biochem. 2014; 51;2: 301-302 Council recommendation on strengthening prevention through early detection: A new EU approach on cancer screening [Internet]. Hemen eskuragarri: https://health.ec.europa.eu/system/files/2022-09/com_2022-474_act_en.pdf Vermeer NC, Snijders HS, Holman FA, Liefers GJ, Bastiaannet E, van de Velde CJ, et al. Colorectal cancer screening: systematic review of screen-related morbidity and mortality. Cancer Treat Rev,. 2017;54: 87-98. DOI:10.1016/j.ctrv.2017.02.002
44. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2014ko azaroaren 6koa, 269 zk.; urriaren 31ko SSI/2065/2014 Agindua, zeinaren bidez aldatu egin diren Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komunak zorroa eta zorroa eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren I., II. eta III. eranskinak. Eskuragarri: <http://www.boe.es/boe/dias/2014/11/06/pdfs/BOE-A-2014-11444.pdf>
45. Allison JE, Fraser CG, Halloran SP, Young GP. Population screening for colorectal cancer means getting FIT: the past, present, and future of colorectal cancer screening using the fecal immunochemical test for hemoglobin (FIT). Gut and Liver 2014. DOI: 10.5009/gnl.2014.8.2.117
46. Zubero MB, Arana-Arri, E, Pijoan JI, Portillo I, Idigoras I et cols. Population-based colorectal cancer screening: comparison of two fecal occult blood test. Frontiers in Pharmacology 2014; 4; 175; 1-8
47. Lansdorp-Vogelaar I, Knudsen AB, Brenner H. Cost-Effectiveness of Colorectal Cancer Screening. Epidemiologic Reviews 2011; 1: 88-100, doi:10.1093/epirev/mxr004.
48. Tran B et al. Preliminary Analysis of the Cost-Effectiveness of the National Bowel Cancer Screening Program: Demonstrating the Potential Value of Comprehensive Real World Data. Internal Medicine 2012; 7: 794-800, doi:10.1111/j.1445-5994.2011.02585.x.
49. Quintero E, Castells A, Bujanda L, Cubiella J, Salas D, Lanas A et al. Colonoscopy versus fecal immunochemical testing in colorectal-cancer screening. N Engl J Med 2012; 366: 697–706
50. Atkin WS, Edwards R, Kralj-Hans I, Wooldrage K, Hart AR, Northover JMA, Parkin DM, Wardle J, Duff SW, Cuzick J, UK Flexible Sigmoidoscopy Trial investigators. Once-only flexible sigmoidoscopy screening in prevention of colorectal cancer: a multicentre randomised controlled trial. The Lancet 2010. 375; 8: 1624-1633.

51. Albreht T, Kiasuwa R, Van den Bulcke (eds). EUROPEAN guide on quality improvement in comprehensive cancer control. Cancer Control Joint Action. National Institute of Public Health (Slovenia) and Scientific Institute of Public Health (Brussels), 2017. 164. or.
52. Federici A, Nicoletti G, van den Bulcke M. Cancer Control Joint Action. Policy Papers. National Institute of Public Health (Slovenia) and Scientific Institute of Public Health (Brussels), 2017. 143. or.
53. Antilla A, Singh D, Lipponen S, Lönnberg S, Bingham C, Tamminiemi K, Molina-Barceló A, Hernández-García M, Rossi PG, Zappa M et al. New openings of cancer screening in Europe. Work Package 5, task 5.2. Cancer Screening: conference report. Innovative Partnership for Action against Cancer. September 2020. Hemen eskuragarri: <https://www.ipaac.eu/res/file/outputs/wp5/new-openings-cancer-screening-europe.pdf>
54. Zorzi M, Fedeli U, Schievano E, Bovo E, Guzzinati S, Baracco S, et al. Impact on colorectal cancer mortality of screening programmes based on the faecal immunochemical test. Gut. 2014. DOI: 10.1136/gutjnl-2014-307508 ¹
55. Logan RFA, Patnick J, Nickerson C, Coleman L, Rutter MD, von Wagner C, et al. Outcomes of the Bowel Cancer Screening Programme (BCSP) in England after the first 1 million tests. Gut. 2012;61;10:1439–46
56. https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_pro_dat_datatable/es_def/adjuntos/avisos/ci_PROGRAMA_CANCER_DE_COLON.pdf ¹
57. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
58. 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, zeinak 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duen (datuak babesteko erregelamendu orokorra)¹
59. Minbizia Bahetzeko Programen Sarea. Hemen eskuragarri www.cribadocancer.com
60. Fernández Landa MJ, Portillo Villares MI, Bilbao Iturrigarria MI, Idígoras Rubio MI, Regulez Campo V, Martínez Indart L. Impacto de una intervención en las consultas de Enfermería de Atención Primaria para la mejora de la calidad de la colonoscopia de cribado. Metas Enferm mar 2020; 23(2):16-22. Doi: <https://doi.org/10.35667/MetasEnf.2019.23.1003081547>
61. Igea F, Casellas JA, González-Huix F et al. Sedación en endoscopia digestiva: Guía de práctica clínica de la Sociedad Española de Endoscopia. Rev Esp Enf Dig 2014; 106: 195-211
Euskadiko Endoskopiako eta Lehen Mailako Arretako lantaldeek eguneratu dute (2020)

GERUZAPEN-IRIZPIDEAK**KOLON ETA ONDESTEKO MINBIZIAREN FAMILIA-AURREKARIAK DAUDENEAN LEHEN MAILAKO ARRETATIK JARDUTEKO ETA DIGESTIBOKO KONTSULTETARA DERIBATZEKO IRIZPIDEAK**

Osakidetza-ren Endoskopiako lantaldeak aholku eman du Kolon eta Ondesteko Minbiziaren Baheketa Programarako, eta, halaber, jarduteko-irizpideak egin eta adostu ditu, familia-aurrekariak edukitzeagatik kolon eta ondesteko minbizia edukitzeko arrisku altua izan dezaketen pertsonen arreta eman eta deribatzeke.

Irizpide horiei jarraikiz, aurrez aurrekoa izango ez den kontsulta egingo zaio ospitalez kanpoko kanpo-kontsultetako Digestio Aparatuko Zerbitzuko mediku espezialistari, kasua baloratu dezan, aholku eman dezan eta, irizpideen arabera, ospitaleko arrisku handikoen kontsultetara (AHK) deribatu dezan pertsona.

AHKn, paziente bakoitza eta haren arriskua ebaluatuko dira, herentziaren osagaia baztertuz, ebidentzian oinarritutako gomendioei jarraikiz. Pazienteari informazioa eta aholkua emango zaizkio, eta jarraipena aginduko (Digestio Aparatuko Zerbitzuko eta/edo Lehen Mailako Arretako kontsultak, populazio-baheketa), Osabiden idatzi eta eskuragarri uztearekin batera.

1. Ospitalez kanpoko Digestiboko kontsultetara deribatzea (aurrez aurreko kontsulta ez)

A) KOMaren aurrekari pertsonalik izan gabe, lehen mailako senide bat (aita/ama, neba/arreba edo anaia/ahizpa, semea/alaba) badute honekin:

- KOMa <50 urterekin
- KOM sinkroniko edo metrakronikoa
- KOM eta EM * sinkroniko edo metrakronikoa
- KOMa eta >10 polipo

B) KOMaren aurrekari pertsonalik izan gabe kontsultara jo duen pertsona, elkarren artean lehen mailakoak diren 2 senidek (aita/ama, neba/arreba edo anaia/ahizpa, semea/alaba) honako hau dute-lako:

- KOMa biek
- Batak KOMa eta besteak endometrioko minbizia (EM)*
- Batak KOMa eta besteak >10 polipo

Gainera, kontsulta egin digun pertsonak aurreko bi horietako baten lehen mailako senidea izan behar du (aita/ama, neba/arreba edo anaia/ahizpa, semea/alaba)

*Lynch-en sindromea (= KOMaren herentziazko sindromearen kausarik ohikoena), EMA da bigarren tumorarik ohikoena

2. Ospitalez kanpoko Digestiboko kontsultatik arrisku handikoen kontsultara (aurrez aurrekoa) deribatzea

AHKn herentziazko kausa baztertzen bada,

honela egingo da KOMaren bigarren mailako prebentzioa:

Kolonoskopia 5 urtean behin, 40 urtetik aurrera, pertsona hauekin:

- KOMik ez, baina KOMa duen lehen mailako senide bat, <50 urtekoa
- KOMik ez, baina elkarren artean lehen mailako senideak (aita/ama, neba/arreba edo anaia/ahizpa, semea/alaba) diren bi pertsona daude familian KOMarekin, eta KOMa ez daukan pertsona beste bi horietako –gutxienez– baten lehen mailako senidea da

KOMaren populazio-baheketan parte hartzea, pertsona hauekin:

- KOMik ez, baina KOMa duen lehen mailako senide bat, >50 urtekoa

KOMa izan gabe bigarren (aitona/amona, izeba/osaba, iloba) eta hirugarren (birraitona/birramona, osaba/izeba zaharra, lehengusua/lehengusina) mailako senide batek KOMa badu, KOMaren populazio-baheketan hartuko du parte.

KOMaren lehen mailako prebentzio-neurriak azpimarratu, familiek askotan partekatzen dituztelako herentziazkoa ez den KOMaren arrisku-faktoreak, garrantzitsuak horiek familia berean KOMaren kasu berriak agertzeko**

(tabakoa, alkohol gehiegi, gehiegizko pisua, sedentarismoa saihestu / dieta mediterraneo eta ariketa fisiko erregularra sustatu) **

OHARRAK

Deribazio-irizpide klinikoen helburua da KOMik ez duten eta beren familia-historiagatik herentziazko sindromea izateko arriskuan dauden subjektuak identifikatzea. Basurtuko Ospitaleko Genetikako, Anatomia Patologikoko eta Digestio Aparatuko Zerbitzuen arteko adostasunez hautatu dira, aurreko bibliografian oinarrituta. Praktika klinikoko gidak Europako esparrura mugatzen dira, azken bileran adostu zen bezala.

Irizpideak sinplifikatzen saiatu gara, esanguratsuenak aukeratuta, Lehen Mailako Arretako profesionalek eguneroko praktika klinikoan aplikatu ahal izateko.

Ezagunak dira susmo-irizpide klinikoek KOM sindrome hereditarioak identifikatzeko dituzten mugak; batez ere, ohikoenarekin dauzkate mugak, Lynch-en sindromearekin.

Horregatik, ospitale guztietako KOM eta EM intzidenteetan Lynch-en sindromearen baheketa ezartzea gomendatzen da. Ahal bada, KOM eta EM guztiei aplikatu beharko litzaieke (baheketa unibertsala), baina onartzen dugu ospitale guztietan ezingo direla onartu horrek ekarriko lituzkeen lan-karga eta baliabideak; batez ere, Anatomia Patologikoko Zerbitzuetan.

Kontuan hartuta baheketa-adina gehiegi mugatuz gero identifikatu gabeko kasuen proportzioa handia izango litzatekeela eta, aldi berean, ospitale bakoitzaren ahalmen asistentzialarekin oreka lortzea litzatekeela egokiena, komenigarria litzateke gutxienez Lynch-en sindromearen baheketa-adina 70 urtera arte luzatzea.

Basurtuko ospitalean, adibidez, 80 urtera arte luzatzea adostu dugu. Amerikan berriki egindako ikerketa batean, kasuak % 1,6 jaitsi dira ebaketa-puntu horrekin.

Protokolo hau berrikusi egin behar da, eskura dagoen ebidentzian eta Osakidetzako sarean lortutako adostasunean oinarrituta.

BIBLIOGRAFIA

Kolon eta Ondesteko Minbizia Diagnostikatu eta Prebenitzeko Praktika Klinikoko Gida. AEG eta SEM-CFyC. 2018an eguneratua. https://www.semfyc.es/wp-content/uploads/2019/01/Actualizacion_Prevention_cancer_colorrectal_Semfyc.pdf

Endoscopic management of Lynch syndrome and familial risk of colorectal cancer: European Society of Gastrointestinal Endoscopy (ESGE) Guideline. 2019. https://www.esge.com/assets/downloads/pdfs/guidelines/2019_a_1016_4977.pdf

Guidelines for the management of hereditary colorectal cancer from the British Society of Gastroenterology (BSG)/ Association of Coloproctology of Great Britain and Ireland (ACPGBI)/ United Kingdom Cancer Genetics Group (UKCGG). 2019. <https://gut.bmj.com/content/gutjnl/69/3/411.full.pdf>

Collaborative Group of the Americas on Inherited Gastrointestinal Cancer Position statement on multigene panel testing for patients with colorectal cancer and/or polyposis. Fam Cancer. 2020 July ; 19(3): 223-239. <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pmc/articles/PMC7326311/pdf/nihms-1595967.pdf>

Familial Colorectal Cancer. Review article. Best Practice and Research Clinical Gastroenterology 2022 <https://doi.org/10.1016/j.bpg.2022.101798> (preprintsan)

KOM: kolon eta ondesteko minbizia

EM: Endometrioko Minbizia

AHK: Arrisku Handikoen Kontsulta

LMS: Lehen Mailako Senitartekoa

BMS: Bigarren Mailako Senitartekoa

HMS: Hirugarren Mailako Senitartekoa

ENDOSKOPIAKO UNITATEAN ETA ALTA EMATEAN ERIZAINZAKO ERREGISTROA EGI-TEKO IRIZPIDE OROKORRAK

Erizaintzako erregistroak asistentzia sanitarioaren funtsezko alderdietako bat dira, eta pazientearen historia klinikoan txertatuta daude. Ondorioz, eraginak dituzte eta erantzukizun jakin batzuk dakartzate, lan-bidearen nahiz legearen alorrean, eta behar besteko zorrotasun zientifikoak gauzatu behar dira, kalitatez egiten direla bermatzeko moduan.

Barruan bil ditzakeen datuen izaera dela-eta, edukiaren konfidentzialtasuna ziurtatu behar da, baita, horrenbestez, informazioan aipatzen den pertsonaren intimitatea ere. Beraz, nahitaez erregistratu behar dira ibilbide klinikoko datu guztiak eta pazienteak tratamenduari emandako erantzuna, ingresatzen dutenetik alta ematen zaion arte.

Erregistroek honako hauek jaso behar dituzte:

Informazio objektibo eta zehatza

Ondo irakurtzeko moduan idatzi, argi

Asistentziarekin batera gertatzen direnak

1. Aurretiko onarpena:

Egiaztatu pazientearen identifikatzeko datuak

2. Anamnesia

Egiaztatu honako hauei buruzko aurrekariak historia klinikoan:

- Alergiak, diabetesa, hipertentsioa, BGBK
- Kirurgia abdominal eta ginekologikoak
- Aurrez egindako endoskopiak
- Koagulazioaren alterazioak
- Ohiko tratamendua: Antiagregatzaileak eta antikoagulatzaileak

Burdina

Antsiolitikoak eta antidepresiboak

Egiaztatu endoskopiaren eta sedazioaren baimen informatua ezagutzen duela eta sinatu duela

3. Miaketa egiten den bitartean

Erregistratu zain-bidearekin eta arnasbidearekin lotutako guztia

Erregistratu proba egin bitartean konplikaziorik gertatu den:

- Arnas depresioa
- Bradikardia
- Mina
- Odoljariora
- Zulaketa

4. Miaketa egin ondoren

Egiaztatu Anatomia Patologikora bidaltzen diren laginetan datu hauek biltzen direla:

- Pazientearen filiazioa eta identifikazioa
- Pazienteari buruzko informazio kliniko garrantzitsua
- Azterketa endoskopikoko aurkikuntzak
- Endoskopian zehar hartutako laginak
- Ontzi bakoitza behar bezala identifikatuta eta zenbakituta

Lagin endoskopiko edo ontzi bakoitzean, egiaztatu honako hauek aipatzen direla:

- Kokapena
- Lagina hartzeko aplikatutako teknika
- Diagnostikorako biopsia den edo lesio bat erazteko egin den
- Erazketaren bat egin bada, osoa, osatugabea edo zatikatua izan den
- Lesioaren morfologia
- Lesioaren tamaina

5. Susperraldiaren iraupena

Aldreteren eskala aplikatu (atala: anesthesiaren osteko altaren indizea)

6. Alta osteko gomendioak

Jakinarazi eta entregatu idatziz alta osteko gomendioak, eta erregistratu

4. KOLONOSKOPIA EGIN ETA ALTA EMAN ONDORENGORAKO GOMENDIOAK

Kolonoskopia heste lodiko lesioak detektatzeko egiten den proba diagnostiko bat da. Prozedura egitean polipoak aurkitzen dira sarritan, eta erauzi egiten dira. Kolonoskopiaren konplikazioei aurrea hartzeko, arretaz irakurri orri hau, eta bertan jarritakoari jarraitu. Zer edo zer ondo ulertu ez baduzu, galdetu medikuei edo erizainei, ospitaletik irten aurretik. Ez zalantzarik izan horretarako.

PROBA BUKATUTAKOAN, HAU SENTI DEZAKEZU:

- **Distentsio abdominala, haizeak botatzeko beharra, hantura edo sabelaldeko kalanbreak.** Proban sartu den aireak sortzen ditu horiek guztiak, eta, ondoeza arintzeko, haizeak bota egin behar dira.
- **Odola uzkitik,** baldin eta poliporen bat erauzi badizute.
- **Logura,** proban erabilitako lasaigarriengatik.
- **Buruko min arina eta ondoez orokorra.**

HURRENGO 24 ORDUETAN:

- **Kolonoskopia egin ondoren, ez gidatu autorik, eta ez lanik egin makina astunekin.** Era berean, ez sinatu dokumenturik, eta ez hartu erabaki garrantzitsurik. Izan ere, lasaigarriek zure ahalmena gutxi dezakete, bai kontzentratzeko, bai erreakzionatzeko.
- **Ez edan alkoholik.** Alkohola eta lasaigarriak nahasteak kalte egin diezazuke.
- **Atsedean hartu, eta ez egin ahaleginik.** Baliteke kolonoskopia egitean polipoak ateratzea. Hartu atsedean, hesteak bere onera etor daitezen eta odoljariorik izan ez dezazun.
- **Apurka, hasi ohiko dieta egiten. Hasieran, likidoak edan, eta, ondo toleratuz gero (ez gorkorik, ez sabelaldeko minik), janari solido bigunak jan.** Saihestu janari oso onduak edo oso koipetsuak, bai eta haziak dauzkatena ere. Ez hartu edari gasdunik.

LARRIALDIETARA JO BEREHALA, HONAKO SINTOMA HAUEK IZANEZ GERO:

- **ARNASA HARTZEKO ZAILTASUNA.**
- **ONDOEZ OROKORRA.**
- **ZORABIO LARRIAK, AHULTASUNA EDO BIHOTZEKO ERRITMO BIZKORTUA.**
- **SUKARRA EDO HOTZIKARAK.**
- **ETENGABEKO EDO ALDIZKAKO ODOLJARIOA, ARINTZEN EZ DENA EDO UGARIA.**
- **SABELEKO MIN LARRIA.**
- **GORAGALE ETA GORAKO LARRIAK.**
- **JATEKO EZINTASUNA.**
- **MINA EDO GORRITASUNA SERUMA JARRI ZIZUTEN LEKUAN.**

GOMENDIO PERTSONALIZATUAK

RECOMENDACIONES AL ALTA TRAS REALIZACIÓN DE COLONOSCOPIA

La colonoscopia es una prueba diagnóstica cuyo objetivo es detectar lesiones en el intestino grueso. Es frecuente encontrar pólipos que serán extirpados durante el procedimiento. Para prevenir las posibles complicaciones de la colonoscopia debe usted leer atentamente esta hoja y seguir las pautas que se le indican. No dude en consultar al equipo médico y de enfermería antes de abandonar el Hospital todo lo que no le haya quedado suficientemente claro.

UNA VEZ FINALIZADA LA PRUEBA USTED PUEDE SENTIR

- Distensión abdominal, necesidad de expulsar gases, hinchazón o calambres abdominales. Esto se debe al aire insuflado en la prueba, por lo que es muy importante su expulsión para aliviar sus posibles molestias.
- Sangrado rectal leve si le han extirpado algún pólipo.
- Cierta tendencia al sueño, por los sedantes utilizados tras la prueba.
- Ligero dolor de cabeza y malestar general.

DURANTE LAS SIGUIENTES 24 HORAS

- **No conduzca un automóvil ni trabaje con maquinaria pesada después de la colonoscopia.** Tampoco debe firmar documentos ni tomar decisiones importantes ya que los sedantes pueden interferir con su habilidad para concentrarse o disminuir su capacidad de reacción.
- **No beba bebidas alcohólicas.** La combinación de alcohol y sedantes puede afectar negativamente a su salud.
- **Repose y no haga esfuerzos.** Durante la colonoscopia pueden haberle extirpado pólipos y debe descansar para que se recupere su intestino, evitando el sangrado.
- **Vuelva a su dieta habitual de manera gradual. Comience tomando líquidos y si los tolera bien (sin vómitos ni dolor abdominal) tome alimentos sólidos blandos**, por lo que debe evitar alimentos muy condimentados o muy grasos, así como aquellos que contengan semillas. Evite también las bebidas gaseosas.

ACUDA AL SERVICIO DE URGENCIAS INMEDIATAMENTE SI TIENE ALGUNO DE ESTOS SÍNTOMAS

- Dificultad para respirar.
- Malestar general.
- Mareos severos, debilidad o ritmo cardíaco acelerado
- Fiebre o escalofríos.
- Sangrado continuo o intermitente que no cede o es abundante
- Dolor abdominal severo.
- Náuseas y vómitos severos
- Incapacidad para alimentarse.
- Dolor o enrojecimiento en la zona en la que le colocaron el suero.

RECOMENDACIONES PERSONALIZADAS

VII. ERANSKINA
PROGRAMAREN ALDAGAIK

ALDAGAIAREN IZENA	DESKRIBAPENA	BALIOAK
DATU PERTSONALAK	Izena.	Testua
	1. abizena	Testua
	2. abizena	Testua
	IKK	Katea
	OTIa	Katea
	NANa	Katea
	Jaioteguna	Eguna
	Sexua	0 Gizona 1 Emakumea
DATU POSTALAK	Kalea	Testu
	Ataria	orokorra
	Bis	
	Blokea	
	Eskailera	
	Solairua	
	Atea	
	PK	
	Tel-zk.	
	Probintzia	
	Udalerrria	
	Herria	
KOKAPEN SANITARIOA	Eskualdea	Osabide kodeak
	LMAko medikuaren kodea	Osabide kodeak
	LMAko medikuaren izena	Osabide
	Osasun-zentroa	Osabide kodeak
GUTUNAK BIDALTZEA	Baztertuentzako gutuna	Kargatze-data
	Informazio-gutuna + liburuxka	Adin-tartea: 0. 50-54 urte 1. 55-59 urte

118

	Prestaketaren kalitatea	Egokia / Hala moduzkoa / Txarra / Ez aplikagarria
	Sedazioa/Analgesia	Sedaziorik ez / S. sakona / S. arina / Ez aplikagarria
	Konplikazioak (ez-baztertzailak)	1. Ez 2. Heriotza 3. Ez aplikagarria 4. Polipektomia osteko sindromea 5. Odoljariora: ingresua/transfusioa 6. Zulaketa: ebakuntza kirurgikoa / tratamendu kontserbadorea 7. Sedazioa: - arinak: bihotz-erritmoaren alderazioa, arnas depresioa, intolerantzia, oka, beste batzuk - larriak: asistolia, anafilaxia, desaturazioa, bronkoxurgapena, beste batzuk
	Aurkikuntzak	0. Normala / Garrantzirik gabeko aurkikuntzak 1. Polipo ez-neoplasikoak 2. Arrisku txikiko adenomak 3M. Arrisku ertaineko adenomak 3A. Arrisku handiko adenomak 5. Kartzinoma 6. Garrantzitsua ez-neoplasikoa 7. Ez argia 8. Ez aplikagarria
	Jarraipena	0. Jarraipenik ez/FIT 10 urte barru < 60 urte 0A. Kolonoskopia/FIT 5 urte barru 1. Kolonoskopia 10 urte barru 2. Kolonoskopia 5-10 urte barru 3. Kolonoskopia 5 urte barru 4. Kolonoskopia 3 urte barru 5. Kolonoskopia 1-2 urte barru 6. Kolonoskopia < 1 urte barru 7. Kontsulta espezializatua 8. Ez aplikagarria

	Biopsia	Eguna Kopurua SNOMED kodea
	egitea	
	Balioa	Bai/Ez
	Behin betiko diagnostikoa	Osabide kodea
	Zentroa	Eguna
	Proba	Kolonoskopia birtuala / Enema opakua / OTA / Beste batzuk
	Mota	Normala / Patologikoa / Ez erabakigarria
	Emaizta	
	Tamaina	
	Topografia	Alfanumerikoa
Anatomia patologikoa	Morfologia	Alfanumerikoa
	T	Alfanumerikoa
	M	Alfanumerikoa
	N	Alfanumerikoa
	Estadioa	0/I/IIA/IIB/IIC/IIIA/IIIB/IIC/IVA/IVB / Zehaztu edo adierazi gabe
	Desberdintzapen-maila	Ona / Ertaina / Eskasa edo txarra / Diferentzia-ziorik gabe edo anaplasikoa / Zehaztu edo adierazi gabe
Kolonoskopia birtuala	Kolonoskopia argia ez bada	Patologikoa bai/ez
Lesioen jarraipena, 5. kasuan. Kartzi-noma	Lehenengo tratamendua	Eguna
	Tratamendu mota	Tratamendurik ez / Kirurgia / Kimioterapia / Erradioterapia / Endoskopiko erradikala / Beste terapia batzuk / Sintomatikoa
		Osabide kodea

Polipoak	Ospitalea	BAI/EZ
	Tratamendu laguntzailea	
	Kopurua	
	Berreskuratuak	
	Tamaina	
	Kokapena	
	Paris sailkapena	
	Histologia	
	Displasia-maila	
	Erauzketa batean edo zatikatua	

Ebaluazio-adierazleak

Egituraren ebaluazio-adierazleak

Adierazlea	Algoritmoa	Informazio-iturria
Informatutako profesionalen %a	Gutxienez saio batean parte hartu duten profesionalen kop./Profesionalen kop. unitatearen/osasun-zentroaren/zerbitzuaren arabera	Langileak Bertaratuen erregistroa
Programara eskainitako baliabideen %a Giza baliabideak, ekipamenduak, baliabide materialak	Programara eskainitako baliabideen kop./aurreikusitako baliabideak	Kontratazioa Giza Baliabideen Zuzendaritza

Prozesuaren adierazleak

Adierazlea	Algoritmoa	Informazio-iturria
Baliozko gonbidapenen %a	Populazioa / Populazio hautagarriak	Itzulitako gutunak Jakinarazpenak
Baliozko test prozesatuen %a	Behin betiko FIT emaitza duen populazioa (positiboa nahiz negatiboa) / kita entregatu duten pertsonen kop.	Gestlab Intzidentziak
FIT emaitza positibodun pertsonen %a	FIT emaitza positibodun pertsonen kop./Behin betiko FIT emaitza duten pertsonen kop.	Gestlab
Guztira egindako kolonoskopien kop.	Programan guztira egindako kolonoskopien kop.	Osabide
Kolonoskopien tasaren %a	Guztira egindako kolonoskopien kop./azken emaitzan FIT (+) duten parte-hartzaileei egindako kolonoskopien kop. * 100	Osabide
Kolonoskopien %a, emaitzen arabera:	Emaitzarik larrienaren arabera kolonoskopia egin duten pertsonen kop./koloneko kolonoskopia egina eta FIT (+) duten pertsonen kop. * 100	Osabide-Integra SNOMED
Kolonoskopia osoen %a	Itsura iritsitako kolonoskopien kop./programan guztira egindako kolonoskopien kop. * 100	Osabide-Integra
Konplikazioen %a	Konplikazioak izan dituzten kolonoskopien kop. / sigman egindako kolonoskopien kop. * 100	Osabide-Integra
Kolonoskopien %a, konplikazio motaren arabera (odoljariora/zulaketa/heriotza/bestelakoak)	Konplikazioak izan dituzten kolonoskopien kop., motaren arabera/programan guztira egindako kolonoskopien kop. * 100	Osabide-Integra
Aurkikuntzaren arabera jarraipenean dauden pertsonen %a	Aurkikuntzaren arabera jarraipenean dauden pertsonen %a/kolonoskopia egin duten pertsonak * 100	Osabide-Integra

Antolaketaren adierazleak

Adierazlea	Algoritmoa	Informazio-iturria
Parte-hartzaileen %a > 10 egun emaitza bidalita	Parte-hartzaileen kop., non emaitzaren bidalketa - gutunaren data > 10 egun / parte-hartzaileen kop. guztira	Osabide KOMBP
Parte-hartzaileen %a > 28 egun kolonoskopia egiteko	Parte-hartzaileen kop., non 1. kolonoskopiaren data - LMAko medikuaren harreman-data > 28 egun / FIT positiboaren ostean 1. kolonoskopiarako data duten parte-hartzaileen kopurua guztira	Osabide.
Tratamendua hasi eta > 30 egunera ondets-teko eta koloneko minbiziaren aurkikuntza endoskopikoa (KOMBP 5. kodea) izan duten parte-hartzaileen %	1. tratamenduaren data - kolonoskopiaren data (5. motako aurkikuntza) > 30 egunera izandako kasuen kop. / KOM aurkikuntza (KOMBP 5. kodea) izan duten parte-hartzaileen kopurua guztira	Osabide.
Atzerapenak (P25, mediana, eta P75), FIT+ emaitzaren eta 1. tratamenduaren artean KOM	Atzerapen-egunen kop./parte-hartzaileak pertzentiletan	KOM programa

Atzerapenak (p25, mediana eta p75), FIT+ emaitzaren eta KOM lehen tratamenduaren artean

	P25	P50	P75
Diagnostikoaren atzerapen-egunak			
Tratamenduaren atzerapen-egunak			
Atzerapen-egunak guztira			

Emaitzen adierazleak
1. taula POSITIBOTASUNAREN, KOLONOSKOPIAREN ONARPENAREN ETA DETEKZIO-TASEN ADIERAZLEAK

TASAK	Euskadi, 2009-2022			Europako Gida
	Gizonak	Emakumeak	Bi sexuak	Bi sexuak
PARTE-HARTZEAREN TASA (baliozko gonbidapenen gaineko %a)	% 67,84	% 72,92	% 70,47	>% 65
POSITIBOEN TASA (parte-hartzaileen gaineko %a)	% 6,5	% 4,16	% 5,25	% 4-11
BERRESPEN-KOLONOSKOPIA-REKIKO ATXIKIPENA, BEHIN BETIKO DIAGNOSTIKOAREKIN (positiboaren gaineko %a)	% 92,45	% 92,92	% 92,65	90-95
ARRISKU BAXUKO ADENOMAREN DETEKZIO-TASA x 1.000 parte-hartzaile	‰ 11,72	‰ 7,185	‰ 9,29	‰ 13,3-22,3

MINBIZIA INBADITZAILEAREN DETEKZIO-TASAK $\geq$ pT1 x 1.000 parte-hartzaile	% 2,99	% 1,5	% 2,19	% 1,3-9,5
LESIO AURRERATUEN DETEKZIO-TASA (LA=AEA + AHA) x 1.000 parte-hartzaile (1-3 adenomak eta/edo % 25 iletsua eta/edo maila altuko displasia)	% 27,795	% 10,97	% 18,78	—
NEOPLASIA AURRERATUAREN (NA) DETEKZIO-TASA = AA+KOM x 1.000 parte-hartzaile	% 30,78	% 12,47	% 20,97	—
KOM-AREN BALIO IRAGARLE POSITIBOA	% 4,59	% 3,61	% 4,17	% 4,5-8,6
BALIO IRAGARLE POSITIBOA lesio aurreratua	% 42,43	% 26,09	% 35,48	—
BALIO IRAGARLE POSITIBOA lesio ez-aurreratua	% 42,74	% 26,35	% 35,77	—

Iturria: Guk geuk egina (Kolon eta Ondesteko Minbiziaren Euskadiko Baheketa Programaren datuak; Europako PKG, 2010).

VIII. ERANSKINA PROGRAMAREN KALITATE-IRIZPI-DEAK (EUROPEAN COMMISSION, 2010)

Adierazlea	Onargarria	Desiragarria
Gonbidapena	% 95	>% 95
Parte-hartzearen tasa	>% 45	>% 65
FIT ezegokiaren tasa	<% 3	<% 1
Testa egiten denetik emaitza jaso arte	>% 90 15 egun baino gutxiago	
Kolonoskopia-aginduaen tasa	% 90	>% 95
FIT (+) diagnostikatzen denetik kolonoskopia egin arte	>% 90 31 egun baino gutxiago	> % 95 31 egun baino gutxiago
Kolonoskopia osoen tasa	>% 90	>% 95
Behin betiko kolonoskopiatik eta tratamendura arte	> % 95 31 egun baino gutxiago	
KOMaren Baheketa Programako endoskopia egin beharko lituzketen prozeduren kopurua	300	>300
Programan identifikatutako biopsia eta lesioen zein ehuneko jakinarazi behar den formatuaren arabera	>% 90	
Neoplasia-maila altuko displasien identifikazio-tasa, Baheketa Programako kolonoskopian patologiagatik erregistratutakoena	<% 5	
Neoplasia-maila altuko displasien identifikazio-tasa, Baheketa Programan patologiagatik erregistratutakoena	<% 10	

IX. ERANSKINA SENTSIBILIZAZIOA ETA PRESTAKUN- TZA

Aldez aurretik:

1. Osasun-zentroetan banatzeko kartelak egitea.
2. Programaren ezaugarriei eta berekin dakartzan probei buruzko liburuxkak egitea. Parte-hartzaileei posta bidez banatuko zaizkie, eta osasun-zentroetan eskuragai jarriko dira.
3. Internet. Interneten lortu ahalko dira liburuxketan jasotako informazio berbera eta erlazionatutako aplikazio bat: [Kolon eta ondesteko minbizia - Osasun Eskola \(euskadi.eus\)](http://KolonaOndestekoMinbizia-OsasunEskola.eus)
4. Doako informazio-telefonoa, herritarrentzat eta profesionalentzat. **900 840 070** (erantzungailua dauka).
5. Posta elektronikoko helbidea harremanetan jartzeko eta zalantzak argitzeko: prevencionccr@osakidetza.eus
6. Prozesuan aritzen diren profesionalen aurkezpena egitea, programaren, ibilbideen eta protokoloen ezaugarriak azalduta. Gutxienez bat arduradunekin, eta bat osasun-zentro eta erreferentziako ospitale bakoitzeko, tarteko profesional guztientzat (medikuak, erizainak, erizain laguntzaileak, administrariak eta egokitzen dituzten oro).

Prestakuntza

HELBURUAK.

Helburu estrategikoa

Lehen Mailako Arretako Unitateetako eta erreferentziako ospitaleetako profesionalen koloneko eta ondesteko minbizia goiz detektatzeko programa eta lortutako emaitzak ezagutzea, programa garatzeko beharrezko ekintzak planifikatzeko, eta profesionalen inplikazioa lortzea, programa abian jarri eta haren jarraipena egiteko.

Helburu espezifikoak

Ezagutzea:

- Kolon eta ondesteko minbiziaren oinarri epidemiologikoak
- KOMBPerako sortutako ibilbideak, baliozkoak
 - FIT+ laginak jaso eta prozesatzeko ibilbideak
 - FIT+ kasuen emaitzen kudeaketa:
 - Baimen informatua
 - Historia klinikoko datuak: ohiko medikazioa (antikoagulatzaileak, antiagregatzaileak), aurrekari pertsonalak eta familia-aurrekariak
 - Ebakuntza aurrekoa, hala badagokio
 - Kolonoskopiak egiteko prestaketa

- Kolonoskopiaren emaitzak kudeatzea: aurkikuntzen sailkapena eta lesioen jarraipena

Garatzea: Programa abiarazi eta hari jarraipena egiteko gaitasunak, biztanleek parte hartzen dutela eta kasu positiboak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzeko.

Profesionalak programaren monitorizazioan eta ebaluazioan **inplikatzeko**, kalitatea bermatzeko.

Profesionalak hobekuntzaren, ebaluazioaren eta ikerkuntzaren alorretan **inplikatzeko**, kolon eta ondesteko minbiziaren prebentzioan jardunbide egokiak eta ezagutza sustatzeko.

Prestakuntzaren garapena:

- 1.- Epidemiologia, programaren oinarria. Prozesua eta lortutako emaitzak.
- 2.- Laginak maneiatzea, kasu positiboak kudeatzea eta kolonoskopiara deribatzea. Kolonoskopiarako prestatzea.
- 3.- LMAUK eta zerbitzu-erakundeak emaitzak azaltzea. Konparazioa, adinaren eta sexuaren arabera.
- 4- LMAUn gonbidapenak planifikatzea.

Prestakuntzaren metodologia:

- Azalpen teorikoak
- PowerPointak, bideoak eta Programaren dokumentazioa erabiliko dira
- Bilerak zoom bidez eta aurrez aurrekoak

X. ERANSKINA PROGRAMAREN JARDUERAREN KALKULUA ETA ARDURADUN NAGUSIAK

URTEKO GON-BIDAPENAK PLANIFIKA-TZEA	Sarearen zenbates- pena	Lehen Mailako Arretaren zere- gin nagusiak	Koordinazio Zentroa- ren zeregin nagusiak	Arreta Espezializatua
Xede-populazioa	300.000	Kanpainaren in- formazio oroko- rra eta iraupena	Osabidetik eta beste iturri batzuetatik hau- tatzea. Zuzendaritza Nagusiaren Informa- tika Zerbitzuarekin prozesua baliozkotzea	
Hautagarriak ez direnak garbitzea (% 10)	30.000	Hautagarriak eta hautagarri ez di- renak balora- tzea	Osasun-zentroei/Gon- bidatuei buruzko datu- baseak eta informa- zioa gurutzatzea. Baz- terketa-gutunak bidal- tzea	
Populazio gonbi- dagarria	270.000	Baztertuen eta parte-hartzaile ez direnen bil- keta	Gonbidapen-gutunak bidaltzea	
Baliozko gonbi- dapenak (% 96)	259.200	OZn jasotzen la- guntzea	Gutuna kitarekin eta informazio-liburuxka- rekin bidaltzea Aurre- tik baliozko helbidea bilatzea	Laginak aztertu eta balioz- kotzea
Parte-hartzea (FIT emaitza po- sitiboa/negati- boa) (% 72,3)	187.416	Gogorazarpen- gutunetan kitak ematea	Emaitzen gutunak bi- daltzea edo erreari buruzko gutunak bi- daltzea (errepika- tzeko)	
Positiboak (% 5,0)	9.371	Kontrola	Positiboen jarraipena egitea	Baheketa-agendak planifi- katzea
LMAko medikuak positiboen bisita jasotzea (% 95)	8.902	Informazioa, baimena, kolo- noskopia-eska- era	Bisitaren kontrola. Bi- sitarik ezean, bilaketa aktiborako zerrendak bidaltzea	
Kolonoskopien zitak kudeatzea (positiboen % 92)	8.621	90057 zita - dx baheketa	Itxarote-zerrendak kontrolatzea	Baheketarako zitak ema- tea

URTEKO GON-BIDAPENAK PLANIFIKATZEA	Sarearen zenbatespena	Lehen Mailako Arretaren zeregin nagusiak	Koordinazio Zentroaren zeregin nagusiak	Arreta Espezializatua
LMAko erizainari egindako bisitak (% 95)	8.902	Informazioa, dieta, prestakina, kolonoskopia osteko aholkuak	Kasuen jarraipena egitea	Kolonoskopiako ordua ematea
Kolonoskopia egitea (% 92)	8.621		Kasu guztiak kodetzea	Kolonoskopia, erauzketa, laginak hartzea
Polipoak erauzte eta KOM biopsia (% 70)	6.035		Kasu bukatugabeen jarraipena egitea	Anatomia Patologikoko analisia
Kolonoskopia ondoko gomendioak	8.621	Pertsonei informazioa ematea, gomendioen arabera	Kasu guztiak kodetzea eta konplikazioak monitorizatzea	Kolonoskopiaren eta Anatomia Patologikoko txostenaren arabera
Informazioa kasu negatiboetan eta hiperplasikoetan (% 30-40)	3.018	Pertsonei informazioa ematea, gomendioen arabera	Negatiboa bada, gutuna bidaltzea	Informazioa kolonoskopia negatiboetan
Behin betiko dx ez duten kasuen bilaketa aktiboa (% 10) eta galeak	937	Kolonoskopiari uko edo beste sistema batzuetan	Kodifikazioa. Bilaketa aktiboa	Kasu konplexuen/beste proba batzuen informazioa
Minbizi inbadi-tzaileen jarraipena (kolonoskopien % 4)	345	Informazioa eman eta jarraipena egitea	Kodifikazioa eta jarraipena egitea	Kasuen jarraipena egitea
Arrisku txikiko adenomen jarraipena (% 15)	1.293	Informazioa ematea, gomendioen arabera	Gonbidapen-gutuna 5 urtera	Informazioa ematea, gomendioen arabera
Arrisku ertaineko eta handiko adenomen jarraipena (% 35-40)	3.448	Kolonoskopia-eskaera 3 urtera eta, zatikatuetan, 6 hilabetera	Datu-baseak gurutzatzea eta LMara eta ospitalera bidaltzea	Kontrolako baheketa egiteko zitak ematea

XI. ERANSKINA GUTUNAK

N11_15 ARRISKU TXIKIKO ADENOMAREN GONBIDAPEN-GUTUNA



Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatua
NextGenerationEU



MINISTERIO DE SANIDAD
Berreskuratze,
Eraldaketa eta
Erresiliencia
Plana



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SALA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Jaun/andre hori:

Zuregana jotzen dugu Kolon eta Ondesteko Minbizia Prebenitzeko Programan **berriro parte har dezazun**. Osakidetza eta Osasun Saila gauzatzen ari dira programa.

Badakigu lehenago ere parte hartu zenuela programan. Egin zizuten kolonoskopian, **arriku txikiko lesio bat detektatu zizuten**. Beraz, gorozkietan odol ezkutua detektatzeko beste proba bat egin beharko zenuke.

Horretarako, **proba egiteko jarraibideak dituen materiala bidaliko dizugu**.

Proba erraza da egiteko, eta bizitza salba diezazuke.

Gainera, fidagarria eta doakoa da.

Programari buruzko informazio guztia webgune honetan dago eskuragarri:



Zalantzarik baduzu, jarri harremanetan Programarekin **900 840 070** telefonoan edo **prevencionccr@osakidetza.eus** helbidearen bidez.

Agur bero bat.

Estimado/a Sr/Sra:

Nos dirigimos a usted para **invitarle de nuevo a participar** en el Programa de Prevención de Cáncer de Colon y Recto que lleva a cabo Osakidetza y el Departamento de Salud.

Nos consta que usted participó en el Programa anteriormente. En la colonoscopia que le realizaron **se detectó una lesión de bajo riesgo**. Por lo que debería realizar una nueva prueba de sangre oculta en heces.

Para ello, **le enviaremos el material con las instrucciones para la realización de la prueba**.

Es una prueba sencilla que puede salvarle la vida. Fácil de realizar, fiable y gratuita.

La información completa del Programa está disponible en la página web:



Si tiene alguna duda, póngase en contacto con el Programa: **900 840 070** o por correo electrónico **prevencionccr@osakidetza.eus**

Reciba un cordial saludo,



Iz/Fdo.: Isabel Portillo Villares
Kolon eta Ondesteko Minbizia Prebenitzeko Programaren Koordinatzailea
Coordinadora del Programa de Prevención de Cáncer Colorrectal

*Kanpaina hau Europar Batasunaren Berreskuratze Tresnak (NextGenerationEU) finantzatu du.

Datuak babesteari buruzko oinarritzko informazioa: Interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza - Euskal osasun-zerbitzuak tratatuko dituela. HISTORIA KLINIKOA tratamenduaren xedea da pazientearen historia klinikoren datuak izatea, horren jarraipena egiteko eta laguntza-jarduera kudeatzeko, zeregin bat betetzeko interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleututako ahal publikoak gauzatzeko. Posible da datuak honako hauei jakinaraztea: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, GSIN, agintari judizialak eta aseguru-etxeak. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Osakidetza langile sanitarioek eman dituzte. Interesdunak eskubidea du datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatze, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko. Datuen babesari buruzko informazio gehiago duzu webgune honetan: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/babesdatuak>

*Esta campaña ha sido financiada por la Unión Europea - NextGenerationEU.

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza - Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLÍNICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y del personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>

N11_15 KOLONOSKOPIA ARRUNTAREN GONBIDAPEN-GUTUNA


Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatua
NextGenerationEU



MINISTERIO
DE SANIDAD



Berreskuratzeko,
Eraldaketa eta
Erresilientzia
Plana



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Jaun/andre hori:

Zuregana jotzen dugu Kolon eta Ondesteko Minbizia Prebenitzeko Programan **berriro parte har dezazun**. Osakidetza eta Osasun Saila gauzatzen ari dira programa.

Badakigu lehenago ere parte hartu zenuela programan. Egin zizuten kolonoskopian ez zizkizuten aurkitu **gaiztotu aurreko lesiorik edo lesio gaiztorik**. Beraz, gorozkietan odol ezkutua detektatzeko beste proba bat egin beharko zenuke.

Horretarako, **proba egiteko jarraibideak dituen materiala bidaliko dizugu**.

Proba erraza da egiteko, eta bizitza salba diezazuke.

Gainera, fidagarria eta doakoa da.

Programari buruzko informazio guztia webgune honetan dago eskuragarri:



Zalantzarik baduzu, jarri harremanetan Programarekin **900 840 070** telefonoan edo **prevencionccr@osakidetza.eus** helbidearen bidez.

Agur bero bat.

Estimado/a Sr/Sra:

Nos dirigimos a usted para **invitarle de nuevo a participar** en el Programa de Prevención de Cáncer de Colon y Recto que lleva a cabo Osakidetza y el Departamento de Salud.

Nos consta que usted participó en el Programa anteriormente. En la colonoscopia que le realizaron **no se detectaron lesiones pre-malignas o malignas**. Por lo que debería realizar una nueva prueba de sangre oculta en heces.

Para ello, **le enviaremos el material con las instrucciones para la realización de la prueba**.

Es una prueba sencilla que puede salvarle la vida.

Fácil de realizar, fiable y gratuita.

La información completa del Programa está disponible en la página web:



Si tiene alguna duda, póngase en contacto con el Programa: **900 840 070** o por correo electrónico **prevencionccr@osakidetza.eus**

Reciba un cordial saludo,

Iz/Fdo.: Isabel Portillo Villares
Kolon eta Ondesteko Minbizia Prebenitzeko Programaren Koordinatzailea
Coordinadora del Programa de Prevención de Cáncer Colorrectal

*Kanpaina hau Europar Batasunaren Berreskuratzeko Tresnak (NextGenerationEU) finantzatu du.

Datuak babesteari buruzko oinarritzko informazioa: Interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza - Euskal osasun-zerbitzuak tratatuko dituela. HISTORIA KLINIKOA tratamenduaren xedea da pazientearen historia klinikoren datuak izatea, horren jarraipena egiteko eta laguntza-jarduera kudeatzeko, zeregin bat betetzeko interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak gauzatzeko. Posible da datuak honako hauei jakinaraztea: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, GSIN, agintari judizialak eta aseguru-etxeak. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Osakidetza langile sanitarioek eman dituzte. Interesdunak eskubidea du datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatatzeko, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko. Datuen babesari buruzko informazio gehiago duzu webgune honetan: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/babesdatuak>

*Esta campaña ha sido financiada por la Unión Europea - NextGenerationEU.

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza - Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLÍNICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y del personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>

N11_14 HELBIDE-ALDAKETEN GUTUNA


Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatua
NextGenerationEU



MINISTERIO
DE SANIDAD



Berreskuratzeko,
Eraldaketa eta
Erresiliencia
Plana



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



Jaun/andre hori

Zuregana jotzen dugu Kolon eta Ondesteko Minbizia Prebenitzeko Programatik. Osakidetza eta Osasun Saila gauzatzen ari dira programa.

Gonbidapen-gutun bat bidali genizun, materialarekin eta informazioarekin, gorozkietan odol ezkutua detektatzeko proban parte hartzeko.

Gutun hau helbide ezezagunarengatik itzuli digute.

Beste helbide hau aurkitu dugu, baina ez dator bat osasun-zentroan emanda daukazunarekin.

Berrikusi zure datuak zure Osasun Zentroan, gonbidatzen jarraitu ahal izateko.

Programari buruzko informazio guztia webgune honetan dago eskuragarri:



Zalantzarik baduzu, jarri harremanetan Programarekin **900 840 070** telefonoan edo **prevencionccr@osakidetza.eus** helbidearen bidez.

Agur bero bat.

Estimado/a Sr/Sra:

Nos dirigimos a usted desde el Programa de Prevención de Cáncer de Colon y Recto que lleva a cabo Osakidetza y el Departamento de Salud.

Le hemos enviado una carta de invitación con material e información para la participación en la prueba de detección de sangre oculta en heces.

Esta carta nos ha sido devuelta por domicilio desconocido.

Desde el Programa hemos encontrado esta dirección que no coincide con la que usted tiene en Osakidetza.

Revise sus datos en su Centro de Salud para poder seguir invitándole.

La información completa del Programa está disponible en la página web:



Si tiene alguna duda, póngase en contacto con el Programa: **900 840 070** o por correo electrónico **prevencionccr@osakidetza.eus**

Reciba un cordial saludo,



Iz/Fdo.: Isabel Portillo Villares
Kolon eta Ondesteko Minbizia Prebenitzeko Programaren Koordinatzailea
Coordinadora del Programa de Prevención de Cáncer Colorrectal

***Kanpaina hau Europar Batasunaren Berreskuratzeko Tresnak (NextGenerationEU) finantzatu du.**

Datuak babesteari buruzko oinarriko informazioa: Interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza - Euskal osasun-zerbitzuak tratatuko dituela. HISTORIA KLINIKOA tratamenduaren xedea da pazientearen historia klinikoren datuak izatea, horren jarraipena egiteko eta laguntza-jarduera kudeatzeko, zeregin bat betetzeko interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak gauzatzeko. Posible da datuak honako hauei jakinaraztea: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, GSIN, agintari judizialak eta aseguru-etxeak. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Osakidetza lantze sanitarioek eman dituzte. Interesdunak eskubidea du datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatzeko, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko. Datuen babesari buruzko informazio gehiago duzu webgune honetan: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/babesdatuak>

***Esta campaña ha sido financiada por la Unión Europea - NextGenerationEU.**

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza - Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y del personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>

N11_13 BAZTERKETA-GUTUNA


Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatu
NextGenerationEU



R Berreskuratzeko,
Eraketa eta
Erresistentzia
Plana



Jaun/andre hori:

Zuregana jotzen dugu Kolon eta Ondesteko Minbizia Prebenitzeko Programatik. Osakidetza eta Osasun Saila gauzatzen ari dira programa.

Programa **honek gorozkietan odol ezkutua detektatzeko proba bat** egitera gonbidatzen ditu pertsonak; eta positiboa bada, kolonoskopia bat gomendatzen zaio, diagnostikoz berresteko proba, alegia.

Zure historia klinikoa jasota dagoenez, **kolonoskopia bat egin dizute azken 5 urteotan**; beraz, ez dagokizu gaur egun berriz ere egitea.

Zure egoera berriz ebaluatu dugu zure osasunzentroan egiten den **hurrengo kanpainan**.

Hala ere, anomaliaren bat nabaritutako bazenu (hesteetako erritmoa aldatzea, odola gorozkietan edo arrazoi jakinik gabeko molestiak hesteetan), jo **Lehen Mailako Arretako Medikarengana**, berak baloratzeko.

Programari buruzko informazio guztia webgune honetan dago eskuragarri:



Zalantzarik baduzu, jarri harremanetan Programarekin **900 840 070** telefonoan edo **prevencionccr@osakidetza.eus** helbidearen bidez.

Agur bero bat.

Estimado/a Sr/Sra:

Nos dirigimos a usted desde el Programa de Prevención de Cáncer de Colon y Recto que lleva a cabo Osakidetza y el Departamento de Salud.

Este Programa invita a las personas a realizarse una **prueba de sangre oculta en heces** y en caso de resultar positiva se le indica una colonoscopia, prueba de confirmación diagnóstica.

Según consta en su historia clínica, **se realizó una colonoscopia en los últimos 5 años**, por lo que no está indicado invitarle actualmente.

Volveremos a **evaluar su situación en la siguiente campaña** que llevaremos a cabo en su Centro de Salud.

No obstante, si notase cualquier anomalía (cambio ritmo intestinal, presencia de sangre en heces o molestias intestinales no justificadas) acuda su **Médico de Atención Primaria** para su valoración.

La información completa del Programa está disponible en la página web:



Si tiene alguna duda, póngase en contacto con el Programa: **900 840 070** o por correo electrónico **prevencionccr@osakidetza.eus**

Reciba un cordial saludo,



Iz/Fdo.: Isabel Portillo Villares
Kolon eta Ondesteko Minbizia Prebenitzeko Programaren Koordinatzailea
Coordinadora del Programa de Prevención de Cáncer Colorrectal

*Kanpaina hau Europar Batasunaren Berreskuratzeko Tresnak (NextGenerationEU) finantzatu du. Datuak babestari buruzko oinarriko informazioa: Interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza - Euskal osasun-zerbitzuak tratatuko dituela. HISTORIA KLINIKOA tratamenduaren xedea da pazientearen historia klinikoren datuak izatea, horren jarraipena egiteko eta laguntza-jarduera kudeatzeko, zeregin bat betetzeko interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako ahal publikoak gauzatzeko. Posible da datuak honako hauei jakinaraztea: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, GSIN, agintari judizialak eta aseguru-etxeak. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Osakidetza langile sanitarioek eman dituzte. Interesdunak eskubidea du datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatze, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko. Datuen babesari buruzko informazio gehiago duzu webgune honetan: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/babesdatuak>

*Esta campaña ha sido financiada por la Unión Europea - NextGenerationEU. Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza - Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLÍNICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y del personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>

N11_025 GIZONENTZAKO KITDUN GUTUNA


Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatua
NextGenerationEU



MINISTERIO
DE SANIDAD



Berreskuratze,
Eraldaketa eta
Erresiliencia
Plana



Osakidetza



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



Jaun hori:

Zuregana jotzen dugu Kolon eta Ondesteko Minbizia Prebenitzeko Programan **parte har dezazun**. Osakidetza eta Osasun Saila gauzatzen ari dira programa.

